

TOKIKOM

2018ko martxoa | 179. zenbakia

ai!kor!

txorierriko aldizkaria

Sutondoan emakumeen elkarteak
Indartsuagoak elkarrekin



Konekta zaitez gurekin!



 **Facebook:**
aikoraldizkaria

 **Twitter:**
@Aikortxori

 **Instagram:**
aikor.aldizkaria

 **Webgunea:**
www.aikor.eus




Zure argazkiak eta albisteak bidali

 **WhatsApp:**
688 86 41 35

 **E-posta:**
aikortxori@aikor.com


Parte hartu aikor.eus webgunean


Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILA BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Toño Ibarra, padel jokalaria
-  **12** Gurean izan da... La Basu, rap-abeslaria
-  **14** Gaztea eta... Ioritz Aurrekoetxea, txirrindularia
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Sutondoan elkarteak
-  **22** Errementari filma
-  **24** Itziar Goiri, Zamudioko bake-epailea
-  **26** Herri galdeketa, Lezaman eta Zamudion
-  **28** Larrabetzu 2025
-  **30** Taldeak... Loiu Kirol Elkartek 75 urte bete ditu
-  **32** Txorierri zuria
-  **34** Teknologia... Euskararen Interneteko egoera
-  **35** Aikorrizketa... Nanoak erraldoien sorbaldan
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



Txorierriko
MANKOMUNITATEA

diruz lagundutako aldizkaria



aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Erika Pereda, Igor Elordui, Idoia Andrés, Laura España, Jon Goikouria Larrabeiti, Itallen bertso eskola, Josu Andoni Begoña, Andoni Aretxabaleta, Cristian Álvarez, Aratz Astobieta, Aner Mentxaka, Úrusula Tomás eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

Artean

Arte da, euskaraz, postposizio bat, denbora-hedadura bat noraino heltzen den adierazteko: *Bihar arte*. Orain arte. Noiz arte? Deklinatuz gero beste postposizio bat sortzen da: artean (bitartean). Horrez gain, *arte(a)* da euskaraz, baita ere, izena. Hainbat izen: artea da tarte; *arteak hartu* da trankildu, lasaitu; *arte hartu*, zerbait egiteko aukera baliatzea... Eta *arte*a da gauza ederrak sortzea helburutzat duen giza jardunbidea.

Gauza jakina da pagoaren familiako zuhaitz bat ere badela *arte*a, hosto-iraunkorra eta enbor-sendoa. Sakratua zenbait tradizioetan, euskal mitologian sendotasunarekin eta bizitza luzearekin lotzen da. Arbola horrexek ematen dio, hain zuzen ere, izena Arratiako Artea herriari.

Hantxe, Artean, Herriko Bentan, egon ginen lehengo batean bazkaltzen. Adiadi entzun genizkion Ramontxu sukaldariari menuko jakien gaineko azalpenak;

zehaztasun osoz eta andaluziarrek daukaten berezko graziaz emanak. Ederto (eta merke!) bazkaldu genuen. Bazkalostean, Ramontxurekin, Mohammad sukaldari-laguntzaile amazigarekin eta Carol nikarguarrarekin aritu ginen berbaz.

Mikelonekin ere egin genuen hitz-as-pertutxoa. Azaldu zigunez, han, Herriko Bentaren goiko partean eta aldameneko etxean, 50 migrante bizi dira, errefuxiatuak gehienak; betiko gure artean gertatzeko esperantzaz batzuk, iragaitzaz ("transitoan") beste batzuk.

Handik zebilen Fatima, Mohammaden emaztea. Eta haien alaba ere bai, beste dozena bat neskato arratiarrekin batera, sokasaltoan jolasten, bentaren aurreko plazan, Jatta gambiarrarekin. Jatta, bi alabaren aita; sorterrian alabak utzita etorri behar izan duen bi metro luzeko mutiltzarra. Sokasaltoan Arratiko neskekin. Ramontxu, Mohammad, Fatima, Carol, Jatta,



IGOR ELORDUI
Kazetaria

Marta, Rosa, Junnes, Zaka... Errefuxiatuak, etorkinak... Gaztelaniaz kasik ere ez da-kite-eta hainbatek; geratuko diren ala ez diren ere ez. Eta, hala ere, euskara ikasten Herriko Bentan AEKren bidez, Lurdesekin.

Artean bat egiten dute lehen lerroka-dako arte guztiek: denbora-hedadurak, bitarteek zein tarteek, lasaitzeek, aukera baliatzeek eta, batez ere, artadi gizatiar baten babesean gauza ederra sortzen duen giza jardunbideak.

Martxoak 8. Gaueko 10ak dira eta ordenagailuaren aurrean jesarri naiz oso sentazio arraro batekin. Gure eguna dela eta, gaur emakumeok planto egin dugu. Hunkigarria eta berezia izan da; milaka gara kalera irten garenok, manifestaldietan egon garenok, sare sozialetan egun honen aldeko mezuak jaso eta bidali ditugunok, baina... non egon dira gizonak?

Badakit ez zeudena deituta, baina ez dut uste berdintasunaren aldeko borroka bakarrik gurea denik -are gehiago, mutil barik ez dugu ezer lortuko-. Badakit gure lana egiten ez dugunean zer gertatzen den agerian

Bakarrik emakumeon planto?




ERIKA PEREDA
Kazetaria

azalerazteko asmoa zegoena, baina interesgarriagoa izango litzateke zenbat gizon zeuden emakumeon planto egiteko prest jakitea.

Nire koadrilan, familian, badaude gizon asko lanuzteak egin nahi zituztenak; emakume batekin bizi direlako, alabak dituztelako, berdintasunean sinesten dutelako. Eta gaur, martxoak 8, bere ahotsa zapaldua izan dela sentitzen dute, guk sentitzen dugun bezala.

2019rako espero dut berdintasunaren aldeko planto egitea, emakumeona eta gizonezkoena ere bai.



Hiri-kulturarik onena, Derion apirilaren 21ean



BreakOnStage hiri-kulturari buruzko jaialdirik handiena da Estatu mailan, eta non eta Derion egingo da aurten, apirilaren 21ean. Han nazio arteko mailako 100 hiri-artista inguru batuko dira. Esther Apraiz, herriko alkatearen esanetan, "ohore da Estatu mailako kale kulturarekin lotutako topaketarik garrantzitsuenetako bat hemen, Derion, egitea. Hala dela, Udalak apustu sendoa egin du kultur adierazpen anitzak sustatzeko eta laguntzeko".

Jaialdiaren erdigunea herriko kiroldegia izango da, baina bere inguruan bost gune atonduko dira. Gune horietan bisitariek *break dance*, *scooter*, *bm*x, *urban dance* eta *cyr wheel* bezalako ekintzak izango dituzte ikusgai. Aurten, eskaintza zabaldu dute eta dantza, musika eta hiri-kirolekin lotura duten ekintza gehiago antolatuko dira. Gainera, aurreko urteetan bezala, formatu handiko ikuskizuna izan-

go da, saio bitan: bata, 18:00etan, familiei zuzenduta; eta bestea, 20:00etan, publiko orokorrari zuzenduta. Sarrerak jaialdiaren webgunean daude salgai. Aldez aurretik eskuratuz gero, 10 euro balio dute; leihatilan, aldiz, 12 euro. Kutxabank txartela dutenek, % 20ko deskontua izango dute.

Azken 5 urteotan, jaialdia Bilbao Arena aretoan egin da, baina horren arrakasta ikusita, antolatzaileek formatu berri bat probatu nahi izan dute, jaialdia garatzen jarraitzeko eta horrek freskotasuna ez galtzeko. "Lekua aldatu eta jaialdia Deriora eramateko erabakia hartu dugu, Parke Teknologikoaren ondoan. Horrela, ikerketa eta esperimentazio ariketa egin nahi dugu. BreakOnStage jaialdia birsortzeko erronka berria da", esan dute antolatzaileek.

Informazio gehiago:
www.breakonstage.com

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, 11. orrialdean, Mikel Villanuevari eta bere amari, Arrateri, egindako argazki bat argitaratu genuen. Akatsa egin genuen Arrateren abizena idatzi genuenean: Arrate Ortuondo zela ipini genuen, baina ez da zuzena. Bere abizena Ugarte da.

Derion, 7,5 euroko aurrekontuak onartuta

EAJ ete PSE alderdietako zinegotziek aldeko botoa eman dute (9), eta EH Bilduko lau ordezkariak abstenitu egin dira. Esther Apraiz Derioko alkateak EAJ eta PSEren arteko Gobernagarritasunerako Akordioa nabarmendu du. "Deriori egonkortasun ekonomikoa ematen jarraitzen dio eta Udalak egungo legealdirako ezarritako helburuak betetzea ahalbidetzen du". Adibidez, Unbe kalea eraberrituko da eta Nagusien Etxea aztertuko da.

Esandakoaren arabera, aurrekontuen lehentasuna ekonomiaren garapena, eta kultur eta gizarte politikak dira. Halaber, iaz derioztarrek egindako hainbat proposamen daude aurrekontuetan sartuta. "Aurrekontuak negoziatzeko prozesua alderdi politiko guztientzat zabalik egon da. Horren adibide, EH Bildurekin lortutako akordioak: Derio eta Loiu arteko errepidea galtzadatzeko konpromisoa eta Mankomunitateari eskatzea eskualde mailan musika eskola bat eraikitzea aztertzeko".

Dirua hala banatuko da: diru-laguntzak eta hitzarmenak, 2.687.518 euro; Ogasun eta aurrekontuak, 280.866 euro; Giza baliabideen kudeaketa eta antolakuntza, 1.771.695 euro; Hirigintza, Etxebizitza, Ingurumena eta Obrak eta Zerbitzuak, 2.437.648 euro; Gardentasuna, Parte-hartzea eta Arreta: 132.736 euro; Kirola, 592.575 euro; Kultura eta Euskara, 1.212.590 euro; Hezkuntza, Enplegu eta Sustapen Ekonomikoa, 441.983 euro, Gazteak eta Jaiak, 235.970 euro; DUK, 470.692 euro.



Gaizka Peñafiel Josu Bergararen azken diskoan aritu da

Aretxabaletako bakarlariak bere bosgarren diskoa atera du: *Asunak*. Lana bederatzi abestik osatzen dute, eta haietan "doinu akustikoak eta zuzenekoak sekulako garrantzia izango dute, oraingo honetan, bandako musikari bakoitzaren finetasuna eta samurtasunari protagonismo berezia eskaini nahi izan diotelako". Grabazio osoa zuzen-zuzenean egin dute eta musikari guztiak elkarrekin aritu dira sesio akustikoetan. Bergararen bandako musikariek batera gonbidatu bereziak ere izan dira grabazio sesioetan eta horien artean Gaizka Peñafiel Lezamako trikitilaria egon da.

Bestetik, jazz musikaren eragina nabaria izan da lan honetan, batez ere piano, kontrabaxu eta bateria-joleen lanean. Hitzei dagokienez, bakarlariak gai anitzak jorratu ditu: batzuk nahiko xelebreak, adibidez, aitatasuna eta deskonexio teknologikoa; eta beste batzuk ohikoagoak euskal kantagintzan, esate baterako, adierazpen askatasuna eta zenbait gai sozial edo politikoak hizpide dutenak. Emaizta ekainean aurkeztuko dute, Bilboko Kafe Antzokian.




Malen Amenabar Derion arituko da BBTren Udaberriko fasean

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren Udaberriko fasea apirilaren 14tik maiatzaren 26ra jokatu da. Denera 78 bertsolarik eman dute izena eta 13 saio egongo dira. Bertsolari horien artean, Malen Amenabar Larrañaga larrabetsuarra dago.

Larrabetsukoa apirilean 15ean, 17:30ean, Derioko Gurea Aretoan egingo den saioan arituko da. Berarekin batera, hauek ibiliko dira oholztan: Aissa Intxausti Aburruza (Lekeitio) Enare Muniategi Etxabe (Gautegiz-Arteaga) Iñigo Kortazar Elias (Algorta) Koldo Gezuraga Seijido (Gernika-Lumo) eta Mikel Retolaza Etxebarria (Busturia).

Udaberriko fasetik puntuazioz sailkatuko dira Udagoieneko fasera. Hori urrian hasiko da eta bost kanporaketa, hiru finalurreko eta finala edukiko ditu. Kanporaketetara 2014an finalista izandakoak batuko zaizkie Udaberriko fasetik sailkatuei. Fase horretan guztira 30 lagunek hartuko dute parte. Finalurrekoetan, berriz, 2016an finalista izandakoak sartuko dira.

Udaberriko faseko sarrerak txarteldgian erosi beharko dira, ez direlako aurretiaz salduko. Txarteldgia saioa hasi baino ordu erdi lehenago zabalduko da. Sarrerak hiru euroan ipiniko dira salgai, baina bazkideek euro bi ordainduko dute. Hamasei urtetik beherakoak doan sartuko dira aretora.



Bestetik, aipatu beharra dago, 2016an, Etxahun Lekue Etxebarria larrabetsuarrak Bizkaiko Bertsolari Txapelketa irabazi zuela. Eta aurtengo txapelketaren talde teknikoan beste larrabetsuar bi egongo direla: Joseba Etxebarria Uriarte, talde antolatzailean; eta Leire Etxebarria Gaztelu, epaile taldean.

2018ko Bizkaiko Bertsolari Txapelketak hainbat helburu ditu, besteak beste, bertsogintzaren oinarria finkatzea eta garatzea, komunitate euskaldunari eta euskal kulturentzako ekarpena egitea, jendarte anitzaren isla izatea, Bizkaiko bertsolaritza azaleratzea eta Bertsozale Elkarteen lana jendarteratzea.

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txartelak emateko: 0-9
412 414000
412 414000

Txartelak emateko: 0-9
412 414000
412 414000

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

HERRAEGIA
URDUTEGIA
IMAZ

MUNDIALDE ETORRIBEA
TEL: 94 454 12 75

DERIO
Eskemik asko
etortzeagatik

BIDE-GORRI

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pinboak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

RUBEN
ERLOJU-DENDA BIXITEGIA

Lehendakari Errepublikako plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 14 40

KAFETEGIA
IAZI
JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

Independentzia aldarrikatu dute Larrabetzun



a: Gaizka Peñafiel

Burujabe hobe" lelopean, Independentzia Eguna ospatu zuten martxoaren 18an, Larrabetzun. Independentistak Sareak bultzatuta eta bertako herritar independentisten batzordeak antolatuta, hausnarketa politiko eta soziala, aldarrikapena eta jai giroa uztartu ziren egun osoan zehar. Azaldu zuten, Euskal Herriak bere etorkizun politiko, ekonomiko, soziala eta kulturala erabaki dezan, burujabetza osoa izan behar du, eta burujabetza osoa gauzatzeko modu eraginkorrena estatu independentea eratzea da.

Euskal estatua arloz arlo egunero erakitzen dabilzan hainbat eragilek hartu zuten parte ekintzetan, hala nola euskara, hezkuntza, sozioekonomia, energia, feminismoa, gazteria, kultura eta memoria historikoa. Ekitaldi instituzionala ere egin zen. Otsailean independentziaren alde azaldu ziren Larrabetzu, Arrankudiaga eta Zollo, Dima eta Bakaikuko Udalak. Larrabetzuko alkate eta zinegotziekin batera, aipatutako Udaletako ordezkariak ere ibili ziren ekitaldian. Era berean, Kataluniako lagunek ere gonbidatu zituzten eguneko ekintzetan parte hartzera. Bestetik, herri bazkaria, kultur emanaldia eta erromeria ere egin ziren.

Loiuko abade-etxeak, gizarte-alokairuan

Loiuko parrokiak abade-etxeak utzi egingo dizkio Eusko Jaurilaritari, loiuotarrei gizarte-alokairuan eskaintzeko. Gaur egun, parrokiak hiru etxebizitza ditu Loiuko herrigunean, guztiak hutsik. "Etxeak arrazoizko prezioan eskainiko dira. Erabaki horri esker, hiru helburu lortu nahi ditugu: etxea edukitzeko eskubidea bermatzeko politika herrian ezartzea; biztanleak Loiun finkatzea; eta belaunaldi-erleboia bermatzea", esan du Jon Andoni Begoña alkateak, bere blogean.

Abade-etxeak egokitu egin behar dira, baina martxoaren amaierarako egongo dira alokatzeko prest. Horietan sartu ahal izateko, interesa dutenek izena eman behar dute Etxebiden, eta ASAP programak ezartzen dituen baldintzak bete. "Parrokiaren jarrera lagungarria da Loiun baliabide gutxi duten lagunentzat", esan du alkateak.

Udalak hainbat proiektu egin nahi izan ditu abade-etxeetan. "Hasiera batean, kultur etxea edo auditorium bat bertan jarri nahi izan genuen; gero, haur-eskola bat; eta azkenik, parrokiari eskatu genion etxebizitzak Udalari uztea".

Informazio gehiago:

Eusko Jaurilaritza
Luis Oza. 609175333
e-maila: asap@alokabide.eus
Loiuko parrokia
loiukosanpedroparrokia@gmail.com


hotela
jatetxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

ASESORÍA

Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidartiazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48350 SONDIKA (Bizkaia)

OAKLAND
ENGLISH

LEHENDAKARI LEIZAOLA PLAZA, 2
ZAMUDIO

946522857

MAILA GUZTIAK
ADVANCED IN ENGLISH
FIRST CERTIFICATE
HIZKUNTZA ESKOLA
BUSINESS ENGLISH
BATXILERGOA
D.B.H.

Truke azoka Lezaman

Lezamako Trukezaleak elkarteak Truke eta Bigarren eskuko azoka antolatu dute apirilaren 22rako. Azoka zazpigarren aldiz egingo dute herriko frontoian, 11:00etatik 14:00ak arte.

Ekitaldiak birziklatzea, gutxitzea eta berrerabiltzea ditu helburu nagusitatzat, eta bertan tresnak zein zerbitzuak trukatu ahalko dira. Bakoitzak ipiniko dio balioa aldatu nahi duenari, eta aldatzeko, saltzeko, prezioa beheratzeko edo oparitzeko erabakia norberarena izango da. "Aurreko azoketan egon diren gauza arruntenak liburuak, arropa, etxeko tresnak, altzariak edo jostailuak izan dira. Baina edozein gauza alda daiteke, adibidez, lana, denbora edo etxea".

Umeek ere edukiko dute euren gauzak trukatzeko aukera: kromoak, joko elektronikoak, jolasak... Era berean, birziklatzeko jokoak eta tailerrak egongo dira, "Bizikleta zuk zeuk konpondu" ekintza, tartean. "Trukea eginez lortzen da, alde batetik, garapen iraunkorrago bat; eta bestetik, gizarte bihozberago bat", azpimarratu dute antolatzaileek. Horregatik, azokan parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrak.



Historikoa Txorierrin ere bai

a: Aner Mentxaka

la hilabete pasa ostean, Martxoaren 8ak oihartzuna izaten jarraitzen du, eduki zuen arrakasta eta jarraipenagatik. Euskal Herriko Mugimendu Feministak 2018ko Martxoaren 8a egun historikotzat jo du. Euren datuen arabera, Euskal Herrian 230.000 emakume manifestatu ziren egun horretan.

Txorierriko talde feministek antolatuta (Koxak, Derio; Zapata Gorriak, Zamudio; Moreak, Lezama; eta Zutunik!, Larrabe-

tzu), gurean ere elkarretaratze eta manifestazio zatatsuek egin ziren, agerraldiak eta bailara gurutzatu zuen auto karabana feminista bat. Ekitaldietan belaunaldi guztietatko emakumeek egin zuten bat, emakumeen eta gizonen arteko parekotasun erreala aldarrikatzeko, eta emakumeen kontrako indarkeria behingoz desagertu dadin eskatzeko. Martxoaren 8aren inguruko egunetan ere ekitaldiak izan ziren, elkarteek eta erakundeek antolatuta, hala nola antzezlanak, hitzaldiak eta kontzertuak.

Familia osorako koloforezko ameta, zure esku!

Zaharzu Berrua
Logopedia
Podologia
Kinesioterapia

clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika

Txantxerriko klinika, 8 - Lurja / Amagui oraina / 48100 BIZKAIA
94 454 01 01 / 957 79 54 45
info@dentozaindus.com / www.dentozaindus.com

Nire Autocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNIALDE ETORBIDEA, 3 48100 DERIO-BIZKAIA
Mugiak: 945 97 06 41 - 945 19 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 95 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

ANKAPALU

LARRABETZU
94455 81 97
LOROÑO BEHEKOA
(BIZKAIA)

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE AUTO-DIAGNOSTIKOA

bai euskarari

baleuskarari.eus
/baleuskarariziurtagiria
@baleuskarari

Ziurtagiriaren Elkarte

Lan eta bizi euskaraz

Ile-sorta solidarioak

"Zure ileak balio du" lelopean, martxoaren 18an ilea emateko ekitaldi solidarioa egin zen Derion. Lehenengo aldia da Bizkaian horrelako ekintza bat egiten dena eta antolatzaileak oso pozik azaldu dira egon den erantzunarekin. "Hogeita hamar lagunek eman dute ilea eta, egia esan, oso pozik eta eskertuta gaude. Izan ere, ez genuen uste zifra horretara ailegatuko ginenik eta harritu egin gaitu. Eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei: ilea eman duten lagunei zein boluntario ibili direnei".

Malkoren bat ikusi bazen ere, emaleek pozik utzi zieten ile-apantzaileei ilea moztzen; gaztetxoek zein helduek. Izan

ere, beren ile-sortak behar dutenentzako ile-ordeak egiteko erabiliko dira. Ekintza solidario honi esker, ile-ordeak merkeago eskuratu ahalko dituzte kimioterapiaren ondorioz ilea galdu duten lagunek, edo gaixotasun arraroren bat duten lagunek. Mechones solidarios irabazi asmorik gabeko elkartearen ordezkari bat egon zen ekitaldian.

Bestetik, goiz osoan umeei eta nagusiei zuzendutako ekintzak izan ziren, hala nola aurpegia margotzea eta koloretako artilearekin ile-ordeak egiteko tailerra, ile-ordeen eta berariazko makillajeen erakusketa eta tailerra, eta mago baten emanaldia. Taberna Ibiltariak goiza girotu zuen.



BBK Music Legends

Jaialdia ekainaren 29an eta 30ean izango da, BBK-k Olan duen zentroan. Ostiralean, Steve Winwood, Mavis Staples, Wilko Johnson Gari & Maldanbera, eta Siniestro Total arituko dira; eta zapatuan, Jeff Beck, John Cale, Glenn Hughes, Ana Popovic, Dead Bronco, Motxila 21 eta MoonShakers. Sarrerak eta bonoak salgai daude. Egun bietarako bonoak 90 euro balio ditu; eta egun bakoitzeko sarrerak, 55 euro (gehi gastuak). Kontzertuez gainera, sormenezko guñeak eta eskaintza gastronomikoak egongo dira. Antolatzaileek iraunkortasunari eta ingurumenari emango diete lehentasuna. Horretarako, ekologiari, birziklatzeari eta garraio publikoari lotutako mezuak zabalduko dira publikoaren artean. BBK-k kohe-sioaren eta gizarteratzearen aldeko apustua egiten du. Jaialdiak helburu hauek ditu: musikaren, artearen eta kulturaren bidez lagun desberdinek bat egitea, hausnarketara bultzatzea eta herritarrak interpelatzeko.

Espaloia, Larrondon

Larrondoko auzokideak aspalditik eskatzen dabilta auzoa eta tren geltokia lotzen dituen espaloia bat eraikitzeko. Loiuko Udalak eskaera hartu eta 165.000 euro ipiniko ditu espaloia hori egiteko, eta, ondorioz, auzokideen irisgarritasuna hobetzeko. Bizkaiko Foru Aldundiak 30.000 euroko diru-laguntza eman dio horretarako.

BC FUN Fitness Gym

Saio pertsonalizatuak, entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu funtzionaleko gunea (HIIT makinak, kardia funtzionala...)

Taldeko BCF saioak (zirkoa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak (high intensity eremua, indoor traila...)

BCF muskulazioa

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. lursaila, Ugaldaguren II 48170 ZAMUDIO

DOAN (Ikasi iragarkia eta matrakulua)

ELORRIETA INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Dorio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

Enaitz

Digitaltekoak 94 455 42 15
Anoak Garaioltza, 74
Plater konbinatuak 48196 Lezama

t o k t a k

EGUNEKO MENUA
lehenengo platena
bigarren platena
potaje
egur
nabarra

9€

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA Tximeleta

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Justizia Auzitegi Nagusiak bertan behera utzi du Lezamako Hirigintza Plan Orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin du Lezamako Udalak 2015ean onartu zuen Hirigintza Plan Orokorra –HAPO–. Horren kontrako helegitea Lezama Bizirik herri elkarteak aurkeztu zuen. “Pozik jaso dugu epaia, baina penagarria iruditzen zaigu herriaren garapena antolatuko duen plan urbanistikorik gabe segitzea”.

Ez da HAPOa bertan behera uzten duten lehenengo aldia. Lezamako Udalak 2006an onartu zituen arau subsidiarioak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak horiek baliogabetu egin zituen 2009an. Espainiako Auzitegi Gorenak 2011n berretsi egin zuen epaia. Udalak arau subsidiarioen lekukoa hartzen zuen HAPOa onartu zuen 2010ean. Bizkaiko Foru Aldundiak plan hori ontzat hartu zuen 2015ean, baina oraingo epaiak baliorik gabe utzi du.

Lezama Bizirik elkartekoen esanetan, epaileak lau arrazoiengatik agertu da Lezamako Udalaren planaren kontra. “Bate-tik, plana garatzeko behar bezalako prozesu parte-hartzailea urtebete beranduago

bultzatu dute; bestetik, balio handiko lurra babesteko egin behar diren izapiderik ez dute egin; halaber, hainbat urtean jarduerak kutsagarria egin den susmoa dago lur-zoru batean eta hori aztertzeke txostenik ez dute aurkeztu; eta, azkenik, aireportuko eremuan gaudenez, telekomunikazio-txostena aurkeztu behar da Madrilen, baina Udalak ez du horrelakorik egin”.

Elkartearen ustez, Udal gobernauk aukera bi dauzka: “Edo orain arte bezala, kasurik ez egin eta helegitea Auzitegi Gorenarean, Madrilen, aurkeztu. Baina epaia jakin arte urteak pasatuko dira eta dirutza xahutuko da. Gainera, oso zaila izango da Auzitegi Gorenak Erkidegoko Auzitegi Gorenaren sententziak ezeztatzea. Edo plana herriko auzokide, elkarte eta enpresekin negoziatzea”. “Gure iritziz, plan honek ez du zentzurik. Alde batetik, EAJk inongo adostasunik lortu gabe onartu duelako; eta bestetik, hango proposamenek Lezama bezalako herri batean ganora handirik ez dutelako. Adibidez, beharrezkoak ez diren etxebizitzak eraiki nahi dituzte, eta 600.000 m² gehiago proposatu dira indus-

tria-erabilerako, Kurtze industria gunearen erdia beteta ez dagoenean”.

Formazko akatsak

Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkatea etsituta azaldu da epaiarekin. “Albiste txarra da herriarentzat, ezin izango dugulako ez etxebizitzarik eraiki, ez industria-eremurik garatu. Ekonomia gorantz doa eta ezin izango dugu aukera aprobe-txatu, herrira industria apur bat ekartze-ko, eta horrekin batera datozen lana eta dirua”.

Alkatearen esanetan, HAPO berri bat ezinbestekoa da, “Lezama hori behar duelako”, baina oraindik pentsatu behar dute zer egin. “Ez dakigu epaiari helegitea jarriko diogun ala ez. Dena dela, gu lasai gabilta, epaiaren arabera, plana ondo dagoelako: etxebizitzaren kopurua, industria-eremua... Baina, formazko akatsak egon dira eta txosten batzuk aurkeztu behar izan ditugu. Dena dela, txosten horietako batzuk ez ziren beharrezkoak HAPOa lantzen hasi ginenean, baina tira...”.

Aurrekoetxeak uste du HAPOak herriaren beharrianak betetzen dituela. “Gehie-nez 472 etxebizitza eraikitzeko proposa-mena egiten dugu, gazteek herritik alde egin behar ez izateko. Industria-eremuari dagokionez, Kurtze I industrigunea % 80 dago beteta, eta Kurtze II.lean, HAPOan proposatzen dena, promozio publikoak sustatu nahi ditugu, Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren bitartez”.

HAPO berria lantzeko, lezamar guz-tiekin hitz egin beharko dela esan du Au-rrekoetxeak. “Azken batean Lezama Bizirik elkarteak 60 lagun daude eta euren inte-resak defendatzen dituzte, baina Lezaman 2.000 lagun bizi gara eta ikuspuntu oroko-rra izan behar dugu”.



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostirle:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Unbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolaniza, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

Alaia
fruta-denda

Etkez etxeko zerbitzuak
Berteko produktuek

Tel.: 9 4520 4199
94 4520 4199



Toño Ibarra Marco | Palakadarako prest

Padel erraketa bat ikusi zuen lehen aldia milurtekoaren hasieran izan zen, lankide baten eskue-tan. Eta duela hiruzpalau urte, Berbalagun talde batean hasi zen Toño padela praktikatzeko, Sondikan, gaur egun arte. "Araudi sinpleko diziplina dugu padela, eta azken hamarkadan gogor astintzen ari da Txorierrin", adierazi du suhiltzaileak. Antza, jokalaria bakoitzari bere maila eskuratzeko progresio eroso-a eskaintzen dio kirol honek.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Toño artista dogu
egia esateko.
Berbalagun taldea
padel pistan deko.
Forma aldetik egon
behar dau ederto
jokatu bitartean
berba egiteko.

Itallen Bertso Eskola

GAMINIZ
JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

enviser

Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak
Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa
Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzorren
deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

t: Itxaso Marina / a: Laura España

Grabazio-estudioan zabiltza ibilal-dirako eta Gure Esku Dagorako abestiak lantzen. Noizko zure hurrengo lana?

Bada, abesti berriak prestatzen nabil, urtea bukatu baino lehen EP bat kaleratu nahi dudalako. Oso urte "potentea" dator.

Aurrekoa, *Izotz erregina*, euskara hutsez kaleratu zenuen. Bide horretatik jarraituko duzu?

Bai, ideia hori da, beharrezkoa dela uste dudalako. Euskaraz ikasi nuen arren, hizkuntza oso ahaztuta nuen eta niretzat erronka izugarria izan zen *Izotz erregina* egitea. Koaderno zirimarrak beteta eduki nuen eta pentsatzen nuen: "Hau ezinezkoa da!". Oso zaila izan zen, baina lortu nuen. Eta egia esan, ez dakit egundoko akatsik egongo den diskoan (kar, kar), baina gauza da saiatzeara eta euskara euskal rapean zabaltzea. Izan ere, erreferente berriak behar ditugu, bai emakumezkoak, bai gizonezkoak zein hizkuntzari lotutakoak. Espero dezagun hemendik aurrera jende asko animatzea rapa euskaraz egitera.

Zuk 16 urte zenituela erabaki zenuen rapa egingo zenuela, 90ko hamarkadan. Musika estilo hori ia erabat ezezaguna zen Euskal Herrian garai hartan, eta zu, gainera, emakume bakarra. Hasiara gogorrak, ezta?

Oso, ezagutzen nituen rap-kantariak mutilak ziren, eta ni baino nagusiagoak, gainera. Orduan, euren artean abesten zuten. Hamar urtean, Euskal Herrian, emakume rap-kantari bakarra izan naiz, eta txarto eduki dut. Baina orain, urteek aurrera egin ahala, atzera begiratzen dut eta diot: "Kris-torena izan da!". Nik hau egin nahi nuen eta burugogorra naiz, oso. Nire lana da orain eta harro nago.

Izan ere, euskal raparen erreferenteetarikoa bat zara gaur egun. Asko aldatu da rap mundua ordutik hona?

Beno, beno, ez dakit nik inorentzat erreferentea izango naizen (kar, kar). Eta



"Gerlaria naiz, horrela izatea egokitu zaidalako"

LA BASU | rap-abeteslaria

Elena Caballero Villanueva *La Basu* moduan da ezaguna rap munduan. Euskal Herriko rap-abeteslaririk inportanteenetarikoa bat da, eta kontzertua eskaini du martxoan Hori Bai Larrabetzuko gaztetxean. Bere ibilbidea eta proiektuak eduki ditugu hizpide berarekin.





Hitz gogorrak

Une latzak dira adierazpen askatasunerako. Twitterro eta rap-ablesari batzuei isunak eta espetxe-zigorra ezarri dizkiete euren hitzengatik; haien artean, Pablo Hasel edo Valtonyc rap-ablesariak. “Bitxia iruditzen zait. Rapean oso hitz gogorrak erabili ohi dira beti emakumeen inguruan, diruaren inguruan... Baina horretarako ez dago isunik. Nahi duzuna esan ahal duzu, baina erregearen kontra aritzen bazara, edo gai konkretu batzuk aztertzen badituzu, kartzelara zoaz. Ez dut ulertzen eta ez dut onartzen. Ezin ditugu gauzak horrela utzi. Borrokatu behar dugu gauzak aldatzeko”. Rapa salatzeke musika da *La Basuren* esanetan; halako zigorrak, tamalez, abestietan esaten dena behin baino gehiagoetan birpentsatzera behartzen dituzte egileak. “Ez dago adierazpen askatasunik eta egon behar da. Azkenean, kultura egiten dugu eta haiek gauzak txarto egiten badituzte... bada, hitz egingo da horri buruz”.

bai, rap mundua asko aldatu da. Euskal rapari dagokionez, ni hasi nintzenean euskarazko talde bakarra zegoen, Selektah Kolektiboa, eta orain talde pilo bat daude gauza ezberdinak egiten. Eta orokorrean ere esan dezakegu gauzak aldatzen ari direla rap munduan. Lehen baztertuta geunden eta oso arraroa zen irratan rapa entzutea edo Bilborocken, esate baterako, rap kontzertu bat ikustea. Orain jendea badoa rapa eza gutzen eta badaki zertan dan... nahiz eta egia den hitzetan ez dela aldaketa handirik egon. Rapa gizonezkoen mundua da eta oso hitz gogorak daude emakumeen kontra. Horri lotuta, gauza batzuk aldatu dira 20 urtean, baina beste batzuek berdin jarraitzen dute. Azken batean, dugun rap-ablesariaren estereotipoak hau izaten jarraitzen du: lagun beltz bat, praka handiak jantzita dituen eta *superguay* dena. Eta bere alboan emakumeak daude, ipurdia mugitzen.

Eta emakume ikuspuntutik?

Gauzak ez dira asko aldatu. Lehen ni bakarrik nengoen, eta orain 10 gaude. Emakumeak rapa egiten behar ditugu, oholtza gainean, eta rapa beste ikuspuntu batetik jorratzen. Nik emakumea iraintzen duten hitz horiek gorrotatzen ditut, ez ditut ulertzen, eta uste dut halako jarrerak suntsitu behar ditugula. Hala ere, badakit ez dela hain erraza.

Emakume erreferenteak Frantzian dituzu, Keny Arkana, tartean. Zail suertatu zaizu erreferente horiek topatzea?

Oso zaila. Horri lotuta, Aneguriak eta biok Eskina Femenina egitasmoa ipini genuen martxan, munduan zehar emakumeek egiten dugun rapa ezagutzera emateko. Kanal bat ireki genuen YouTubean eta dagoeneko 1.600 bideo baino gehiago eskegi ditugu bertan. Festibalak ere antolatu ditugu eta elkar ezagutzeko aukera izan dugu. Baina oso gutxi gara, Euskal Herrian zein Estatuan. Beste herri batzuetan emakume rap-ablesari gehiago daude, aukera gehiago ematen dizkietelako. Baina, gero, haiekin hitz egiten duzunean, egia da esaten dizutela zailtasun askori egin behar izan dietela aurre. Izan ere, lehen esan dudana moduan, rapa gizonen mundua da eta ez da hain erraza zure tokia lortzea, errespetua. Dena dela, nik beti entzun dut emakumeek egindako rapa eta ahalegindu naiz emakumeen lana hemen eta hor topatzen. Beste emakumeen lana zabaltzea gustatzen zait, hori ulertzea, eta nik bizi izandako hau guztia euren ahotik ere entzutea.

“Erreferente berriak behar ditugu, bai emakumezkoak, bai gizonezkoak zein hizkuntzari lotutakoak”

“Emakumea iraintzen duten hitzak gorrotatzen ditut. Halako jarrerak suntsitu behar ditugu”

“Rapa gizonen mundua da eta ez da hain erraza emakumeok gure tokia lortzea, errespetua”

Oso rap pertsonala egiten duzu eta zure abestietan zutaz, inguratzen zaituenaz eta arduratzen zaizunaz hitz egiten duzu. Rapa hain estilo sendoa, gogorra... izanda, beti ez da erraza izango sentimenduak jendaurrean ipintzea.

Egia da batzuetan koraza antzeko bat janzten duzula, baina niri gustatzen zait gertatzen zaizkidan gauzez hitz egitea, ezagutzen dudana, eta gustatzen ez zaidana salatzea ere badut gustuko. Asko hitz egiten dut askatasunaren inguruan, emakumeen inguruan... Orain ikusten duzuna ondo egon edo oso polita izan arren, horrek ibilbide bat eduki duela azaltzea, eta gogorra izan dela. Oso rap pertsonala egiten dut, bai, baina uste dut jendeak azkenean berarekin bat egiten duela, beharbada bizitza oso antzekoa eduki dugulako. Nik ez dakit beste rap bat egiten. Rapa borroka da niretzat eta buruan dudana hori guztia kaleratzeko erabiltzen dut.

Nolako rap-ablesaria zara?

Gerlaria naiz. Horrela izatea egokitu zaidalako. Azken batean, nire lana defendatu behar izan dut, nire rapa. Burugogorra naiz eta ez dakit nora ailegatuko naizen... baina helduko naiz.

Txirrindulari goiztiarra

IORITZ AURREKOETXEA | trial txirrindularia

Gazte derioztarrak zazpi urte baino ez dauzka eta horregatik, hain zuzen ere, harrigarria da bizikletaren gainean erakusten duen maisutasuna. Ioritz bankuetatik dabil gora eta behera, eta askotan joan da txapelketetara, noski. Eta batzuk irabazi ere egin ditu. Trial txirrindulari goiztiarra da mutikoa.

t/a: Gaizka Eguzkitza

Urte bi zituela Ioritz bizikletaz ibiltzen hasi zen. "Ez ditut inoiz gurpil txikiak erabili", esan digu harro-harro. Hasiera batean, pedalik gabeko bizikletak erabiltzen zituen, jostailu-dendetan saltzen dituzten horietakoak, beste ume askok bezala. Baina apur beranduago pedalak erabiltzen hasi zen eta, urtebete beranduago, triala egiten. Ioritz aitaren eskutik hasi zen bizikletarekin. "Oso zaletua izan naiz beti: gaztetan neuk ere hartzen nuen parte txapelketetan, errepide zein zirkulak mailakoak. Bizikletara bideratu nuen Ioritz, oso kirol polita delako eta, horri esker, hainbat gaitasun hartzen dituzulako: oreka, koordinazioa... Gainera berari ere betidanik gustatu izan zaio eta oso trebea izan da", esan digu Iñigok, Ioritzaren aitak.

Ioritz eta aita inguruko landetan eta kaleetan hasi ziren entrenatzen euren kabuz. "Bizkaia mailan ez dago ia inor triala bizikletaz egiten duenik. Azkenean, Barakaldoko talde bat topatu nuen, baina txirrindulari guztiak dira Ioritz baino nagusiagoak. Normalean, Sondikan entrenatzen dugu, baina Barakaldoko Udalak baimena eman digu Gorostizako kiroldegian entrenatzeko gune bat atontzeko", azaldu digu Iñigok. "Niri kalean entrenatzea gustatzen zait", gaineratu du Ioritzek.

Gasteizen trial eskola bat dago eta batzuetan hara ere joaten dira entrentzera. "Normalean bakarrik entrenatzen dut, baina hori aspergarria da. Gasteizen, aldiz, nire adineko lagun batzuekin ibiltzen naiz eta primeran pasatzen dut", dio Ioritzek. Batzuetan aitak harrieekin edo paletekin prestatutako zirkuituak egiten ditu gazte derioztarrak; eta besteetan, kalean topatzen dituen oztopoak -bankuak, zintarriak...- gainditzen ditu. "Denetarik egin behar du, txapelketetan edozein motatako oztopoei aurre egin behar diezulako".



Bai, Ioritzek txapelketetan ere hartzen du parte. "Lau urte zituela hasi zen lehian sartzen. Bike trial mailan jokatzen du normalean, 7-9 urteko mailan; baina beste batzuetan 10 urteko mutilen kontra jokatzen du. Bizkaian ez da gauza handirik antolatzen, baina Reinosan (Kantabria) eta Gipuzkoan hainbat lehiaketa egiten dira. Urte hasieran, Gipuzkoako txapelketa jokatzen da eta Reinosan hilabetearen behin antolatzen dute saioaren bat. Iaz Kantabria-

ko Openean laugarrena gelditu zen, eta orain dela urte bi, bigarrena. Eta aurten Reinosan antolatzen dituztenetako saio bat irabazi du", aipatu du Iñigok.

"Lehian sartzea izugarri gustatzen zait. Gainera, lagunekin ibiltzen naiz txapelketan eta hori oso pozgarria da", dio Ioritzek. "Oso giro polita dago saio guztietan. Elkarrekin ibiltzen dira, entrenatzen, oztopoen ibilbideak egiten, elkar animatzen dute saioetan... Txapelketan lehiakortasuna dago euren artean, noski, baina horietatik kanpo lagunak dira", dio aitak.

Kirol garestia

Triala egiteko materiala garestia eta ezohikoa da, batez ere bizikleta. Ez dauka eserlekurik eta galgak normalean ez dira diskozkoak, hidraulikoak baizik. Gainera, kuadroa laburragoa da eta piñoia, desberdina, katea tenteago egoteko. Ioritzek babesgarri batzuk jantzen ditu: buruan, zangoetan, bizkarrean... "Garestia bada, eta nekez topatzen dira, denda espezializatuetan baino ez dituztelako saltzen. Eta bigarren eskuko merkatua txikia da, bizikleta gutxi dagoelako. Semearen bizikleta nik neuk muntatu nuen zatiz zati".

Ioritzek trialerako zaletasuna piztu du bailaran. Izan ere, Joseba, Derioko beste mutil bat, liluratuta gelditu zen Ioritzekin behin herritik entrenatzen ikusi zuenean. "Nire lehengusua laguna da", esan du Ioritzek. "Ioritz baino pare bat urte nagusiagoa da eta apurka-apurka sartzen dabil trialean. Hasiera batean, Ioritzek utzi zion

Bizikletara aitak bideratu zuen Ioritz, "oso kirol polita delako eta, horri esker, hainbat gaitasun hartzen dituzulako"

"Lehian sartzea izugarri gustatzen zait. Gainera, lagunekin ibiltzen naiz txapelketan eta hori oso pozgarria da"



bizikleta; geroago, gurekin ibili zen en-trenatzen nik utzitako bizikleta batekin. Eta azkenean berak erosi du bizikleta", dio Iñigok.

Ioritzek saskibaloian ere jokatzeko du Txorierri Basketland taldean, baina gaz-teak bizikleta nahiago du, zalantzarik gabe. "Pilota edo futbola, esate baterako, ez zaizkit gustatzen, kirolariak elkarren artean borrokatzen dutelako. Bizikletaz, aldiz, nire kabuz ibiltzen naiz leku bate-tik bestera". Iñigok esperientzia handia dauka herri kirolean eta bere ibilbideari jarraituz, zelan ez, Ioritzek horietan ere aritu da. Dena dela, bizikleta da gaz-teari gehien gustatzen zaiona. "Zaila da orekari eustea, baina polita da Iortzen duzunean eta oztupoak gainditzen ditu-zunean".

*"Bizikleta izugarri
gustatzen zait.
Nire kabuz ibiltzen
naizelako leku
batetik bestera"*





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP

Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lurideko Heziketa eta Sagarren Ikastetxeak

Unibertsitate Euzko Kalea, 1
48100 - DEIRO

Tel.: 94 403 40 40 | Fax: 94 403 40 41
info@txorierri.net | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

ATEAK IREKITEKO EGUNA

Gure instalazioak, talerrak eta laborategiak berrit-
ditzaizkizu (18.30etatik)

Apirilaren 24an
Maiatzaren 3an
Ekainaren 7an

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekaniako Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekaniako Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Elkarrekin Kudeaketa Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari






100 ikasle baino gehiago eta 34 enpresa, “Ezagutu Aukeratzeko” jardueretan



Bere lana betetzen duen pertsona baten ondoan egun bat pasatzea; hainbat sektoretako enpresak bisitatzea, euren lana zertan datzan ikusteko; profesionalen lan-esperientzia entzutea; zalantzak galdetzea... Urriaz geroztik, Txorierriko ehun bat ikaslek hartu dute parte EGAZ Txorierri kudeatzen duen 'Ezagutu Aukeratzeko' programako orientazio-jardueretan. Horiek diseinatu daude Bigarren Hezkuntzako azken ikasturteko eta Batxilergoko ikasleek lehenengo harremana izan dezaten enpresa-errealitatearekin eta, horrela, etorkizunerako nahi duten lan-ibilbideari buruzko erabakiak ahalik eta informazio onenarekin har ditzaten.

Ekimen hori Txorierriko Mankomunitateko Gazteria Sailak, Erandioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako 'Gaztedi Bizkaia' programaren barruan dago, eta programaren helburua da gazteen politika integrala sustatzea eta gartzea.





Aurtengo edizioan 49 profesionalek, 34 enpresak eta 24 familiak parte hartu dute proiektuaren lau jardueren motetan, hasi seme-alabei etorkizuneko hezkuntza-ibilbidea hautatzen laguntzeko gurasoentzako orientazio-jardueretatik, eta enpresetan zuzeneko esperientziak izateko aukera ematen duten jardueretara.

Azaroan BTEK jardunaldia egin zen, DBHko 3. eta 4. mailako ikasleen gurasoentzat, prestakuntza-eskaintzari eta eskualdeak dituen lanbide-irteerei buruzko orientazioa emateko. Bertan, hainbat lan- eta akademia-eremutako profesionalek hartu zuten parte, eta azaldu zuten gazteek zein aukera izango dituzten. Hala, EGZ Txorierriko gerente Alex Loustau-nak azaldu zuen eskualdeko enpresek zein prestakuntza-profil eskatzen duten gehien, eta Politeknika Ikastegia Txorierriko koordinatzaile pedagogiko Marivi Cuartangok Lanbide Heziketako eskaintzaren berri eman zuen. Gainera, Esteban Laraudogoitiak (EHU/UPV) unibertsitate-ikasketen eskaintza azaldu zuen. Halaber, Bizkaiko Teknologia Parkeko Lankidetzak eta Zerbitzuen Arloko Alex Urracak eta hezkuntza-orientatzaile Ainhoa Saenzek ere hartu zuten parte.

Bestalde, 103 ikaslek hartu dute parte enpresetan egin diren egun bateko egonaldietan, eta euren intereseko lan-eremuetan lanaldi baten nondik norakoak ezagutu ahal izan dituzte. Programaren barruan, halaber, enpresetara bisitaldiak antolatu dira. Hainbat konpainiak atek zabaltu dizkiete ikasleei, euren egune-

roko lanaren berri emateko, ikasleek lan-mundua ezagut dezaten eta erabaki dezaten norantz bideratu nahi duten euren lan-ibilbidea.

Besteak beste honako enpresa hauek hartu dute parte: Derioko Eskola, RDT ingenieros, ITP, Matrici, ZIV, Idertia, Uriarte Safibox, Gestamp, Inser Robótica, Grupo Lontana eta Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Zerbitzuak. Horrela, adibidez, eskualdeko ikasleen interesekoak diren ingeniariartzako, baso-zaintzako eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako profesionalekin lehen harremana izan dute parte-hartzaileek.

Horiez gain, gazteei enpresen errealtatea hurbilarazteko, ZIV elektrizitate-enpresako fabrikazio arloko zuzendari Begonia Aranzabe eta IDDETEKeko gerente eta fundatzaile Irene Rodríguez, Politeknika Txorierri izan ziren sektore-mahaietan parte hartzeko. Bertan, euren lan-esperientzien berri eman zieten ikasleei eta enpresa-munduaren inguruan zituzten zalantzak argitu zizkieten.

Beraz, ehun bat gaztek izan dute aukera hainbat sektoretako enpresa-errealtatearekin lehen harremana izateko; horri esker, etorkizunean erabakiak hartzeko irizpide objektibo eta praktikoak izango dituzte.

**EGZ Txorierriko
kudeatutako ekimena
'Gaztedi Bizkaia'
programaren
barruan dago**

**49 profesionalek, 34
enpresak eta 24 familiak
parte hartu dute,
gazteei lan mundua
ezagutzen laguntzeko**

www.osasunarenlasterketa.com

TXORIERRIKO OSASUNAREN ALDEKO KARRERA MARTXA

APIRILAK 22

IBILBIDEA
10 km Txorierriko zehar
Sondika-Leku.

IRTEERA
Sondika ikastegia

- Biziak 10:30etan
- Korrika 10:35ean
- Ginea 10:40an

SAI AMAIERA
Abadetsu Kalea, Leku
11:30 etatik 12:00 etara

Rokodromoa, zirkuitak, musika,
ezkeriak, familia eta bizikletzako
jarduerak...

PREZIOA
Tutak, (14 urtera arte) 3€
Helduak, 5€

IZEN-EMATE
www.osasunarenlasterketa.com

Autobusa egongo da don Lekuik
Sondikara 09:30etik aurrera eta
karrera-martxa amaitzen Sondika
kara bueltatuta da. Azken bisita
10:30etan

ELKARTEETI EMANGO ZAIE

TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

25 urte emakumezkoen alde lanean

SUTONDOAN DERIOKO EMAKUMEEN ELKARTEA

Sutondoan elkarteko kideak 25. urteurrenaren ospakizunetan dabilta murgilduta. Mende laurdena, emakumezkoak heziten eta ahalduntzen. Ibilbide horretan senideak, lagunak eta erakundeak inplikatzeari lortu dute.



t: Itxaso Marina / a: SE

Begoña Maillo elkartearen gaur egungo presidentea da; eta Gloria Bosque, elkartearen barruan dagoen antzerki taldeko kideetarikoa bat. Hasiera-hasieratik daramate elkartearen biak. "1992ko abenduaren 23an eratu ginen ofizialki. Goio Egia herriko udaltzain zebilen garai hartan eta emakumezko batzuei egin zien elkarte sortzeko proposamena. Izan ere, herrian ez zegoen emakumezko zuzendutako ezer, eta helburua emakumezkoak etxetik ateratzea zen, eta bada. Etxetik ateratzea, eta emakumezkoak hezte eta informatzea. Ondo informatuta dagoen emakumezko emakumezko ahaldundua delako".

Lau emakumezko hasi ziren elkartearen, baina egitasmoa ahoz aho zabaldu zen eta berehala lortu zuten 60 bat emakumezko batzea. Sira Elorriaga lehenengo presidentea izan zen. "Ilusio handia geneukan, eta gauzak egiteko gogo bizia. Ondorioz, arrakasta erabatekoa izan zen. Gainera, urte horietan Emakunde ahalegin berezia egin zebilen emakumezkoen elkarteak sortzeko, eta laguntza handia jaso genuen euren lagandik. Foru Aldunditik ere bai". Gaur egun, 257 kide inguru dira. "Estatutuaren Derioko elkartearen ginelan ipini genuen, baina beranduago haiek aldatu eta Txorierriko elkartearen ginelan esan genuen. Geroago estatutuak berriro aldatu eta Bizkaiko elkartearen gara orain. Derioko emakumezkoak ez ezik, Loiuakoak, Portugaletekoak, Basaurikoak, Urtuellakoak... ere bagaude gurean. Derioztar ez direnak lagunak bitartez eduki zuten elkartearen berri eta hasi ziren antolatzen ditugun irteeretan eta parte hartzen. Hain ondo tratatu genituen, ezen erabaki baitzuten gurekin bat egitea". Urte hauetan aldatu ez dutena elkartearen izena da: Sutondoan, Derioko emakumezkoen eta kontsumitzaileen elkartearen.

"Pertsona eta emakumezko moduan hazi nahi dugu. Horretarako, gure burua



arloan guztietan trebatu nahi dugu eta ikastaroak, hitzaldiak... antolatzen ditugu. Hasi ginean, batzuek ez zekiten irakurtzen eta ikastaroak egin genituen, ikas zezaten. Interesgarriak jotzen ditugun gaiak lantzen ditugu hitzaldietan, eta gaurkotatzen dutenak ere bai. Iaz, esate baterako, euskal kupa eduki genuen hizpide: zer da, zertarako balio du eta zeintzuk dira hari lotuta dauden betebeharrak eta abantailak". Euren eskubideak ezagutzeko hitzaldiak ere antolatzen dituzte eta haiek beren erreferentziako abokatuak ematen dizkie, Olga Macías. "Hasierako hitzaldi batean, aurrezki-libretan senarraren izenaz gainera gurea ere agertu behar zela esan zigun, senarra hiltzen bazen, arazoak eduki ditzakegulako. Eta, noski, guk ez genekien ezer horri buruz... Bada, hurrengo egunean guztiok joan ginen korrika banketxera, aurrezki-libretetan gure izena ere ipintzera! (kar, kar)".

Era berean, antzerki taldea eta abesbatza dituzte elkartearen. Euskara eskolara jasotzen dituzte eta irteera pilo bat antolatzen dute urtean zehar. "Irteeretara

gizonezkoak ere etor daitezke, baina ikasurte amaierakoa bakarrik guretzat, emakumezkoontzat, da. Aurtengo, Peñiscolara joango gara, 25. urteurrena ospatzera". Besteak beste, kakoratz-lanak eta gurutze-puntua egiten dituzte eta hainbat tailer antolatzen dituzte, adibidez, oroimena trebatzeko, erlaxatzeko eta risoterapia.

Aitzindariak

Himno bat ere badaukate. "Bazkideen urtebetetzeak ospatzen ditugu, Santa Ageda egunean abestera ateratzen gara, herriko jaietan hartzen dugu parte...". Izan ere, hasieratik oso partaidetza aktiboa eduki dute Derioko bizitza soziokulturean. "San Joan egunean, esaterako. Lehen suak pizten ziren herriko hainbat txokotan, baina txosten bat egin zen herriarrek su handi bakar batean inguruan biltzeko, eta Udalak onartu egin zuen. Sardinak erretzen genituen eta 150 litro txokolate prestatzen genuen herriko guztientzat. Eta ez pentsa! Txokolatea guk geuk zatitzen genuen, zati txiki-txiki, eta su oso txikitik prestatzen genuen, gainera. Hori bai lana! Gero eta jende gehiago biltzen ginen su inguruan, eta Udalak catering enpresa bat kontratatzea erabaki zuten azkenean".

Herriari bizitasuna ematen aitzindariak izan direla aipatu digute. "Gurea sortu zenean oso elkarte gutxi zeuden herrian eta Udalak ez zuen ezer antolatzen. Gero ikusi zuten gure hitzaldiak, ekintzak... arrakastatsuak zirela eta haiek ere hasi

*Gaur egun 257
kide inguru dira,
Deriokoak eta
Txorierrikoak ez ezik,
Bizkaia osokoak ere bai*

*"Emakumezko
moduan hazi nahi
dugu. Horretarako, gure
burua arlo guztietan
trebatu nahi dugu"*

*"Guk erakundeek
baino askoz lehenago
ospatu eta aldarrikatu
ditugu Martxoak 8 eta
Azaroak 25"*

ziren gauzak egiten. Zorionez, gaur egun elkarte piloa gaude Derion. Orain dela urte batzuk euskal ezkontza antolatu zen, ederra izan zena, eta herriko elkarteetako kide askok hartu genuen parte bertan. Gure ustez, ekintza hori baliagarria izan zen elkar-teok batuago egoteko".

Derioko emakumezko gazte batzuk elkartu dira eta Koxak talde feminista osatu dute. Sutondoan elkarteko ordezkariak hori gauza handia eta polita dela uste dute. "Baina esan diegu lehenago egin behar izan zutela. Martxoaren 8an, pankarta genuela, udaletxean elkarretaratzen ginean, jendeak bitxiak izango bagina moduan begiratzen zigulako: *hara, hor daude atso horiek berrirori!*". Aurtengo Emakumeen Egunari buruzko hausnarketa ere egin dute. "Ederra prestatu da! Normala, denak duelako muga bat, eta emakumezko nahikoa dela esan dugulako. Emakumezko guztiak ados jartzen bagara, mundua gelditzen da. Asko eta asko pentsatuko lukete, munduko emakumezko guztiek ados ipintzea lortuko bagenu. Egia da gauzak ez direla lehen moduan; etxean, esaterako. Gero eta gizonezko gehiagok beren partea egiten dute, baina hori emakumezkoen lorpena eta lana izan da, seme-alabei erakutsi diegulako etxea bertan bizi diren guz-

tien ardura dela. Guk ez dugu laguntzarik behar, gauzak ederto egiten dakigulako. Guk nahi dugu bakoitzak bere partea egin dezala. Parekotasunaren haritik, ikastaro asko eman dira elkarteetan". Erakundeen jarrera ere salatu dute. "Guk erakundeek baino askoz lehenago ospatu eta aldarrikatu ditugu Martxoak 8 eta Azaroak 25. Haiek oraintsu erakutsi dute interesa-edo, eta ahoa hitzez betetzen zaie egun horiek ailegatzen direnean. Ez dakigu gainontzeko egunetan zertan ibiliko diren".

Pozik baino pozago daude elkarteak 25 urte bete dituelako. "Gainera, hasi ginean inork ez zuen konfiantzarik guregan". Elkartearen egotea askeagoak izateko baliagarria izan zaie. "Jakiteak boterea ematen duelako, eta dagoeneko ez gara kikiltzen etxean edo lagunen artean eztabaida dagoenean. Badakigulako zeri buruz hitz egiten ari garen. Gizonezkoek

ere esaten digute: *Ene, zenbat ikasi duen nire emazteak zuekin elkarteetan dagoenetik!* (kar, kar). Bestetik, lehen pentsaezina zen gu bakarrik, senar barik, oporretara joatea; bada, orain bagoaz. Nahi dugulako eta inori baimena eskatu barik".

Ekitaldi nagusia

Urteurrena apirilaren 14an, arratsaldean, ospatuko dute Derioko kiroldegian. Elkartearen historia laburbilduko dute ekitaldian, eta antzezlanen esketxak eskainiko dituzte. Poesiaren bat irakurriko dute eta zuzenean erakutsiko dituzte elkarteko emakumezkoek egiten dituzten lanetarikoz. Kopaua ere egongo da. Kiroldegian jende piloa batzea espero dute; herritarrek, elkarteak eta erakundeetako ordezkariak, tartean.

Esku artean erronka handirik ez daukarela aitortu digute. Hori bai, beraien lokalen bat edukitzea gustatuko litzaieke, "Kultur Birikan dugun aretoa herriko beste taldeekin partekatu behar dugulako, eta beti orduari begira ibili behar dugulako. Gainera, ez da leku egokia mota batzuetako ikastaroak antolatzeke, adibidez, erlaxazio ikastaroak, zarata handia dagoelako". Era berean, aipatu digute edadeko emakumezkoak ez direla haraino igotzera ausartzen. "Bada-kizue, aldaka dela, belauna dela... Ondo legoke geure lokala izatea, bertan nahi duguna eta presa barik egin ahal izateko. Bestalde, nahi izanez gero, asteburuetan ere joan ahal izateko nahi duenak, esaterako hitz egitera, irakurtzera, albisteez mintzatzera, kartetan aritzera...". Diru aldetik konpontzen direla diote. "Diru-laguntza bat



Antzerki taldea, bastioietako bat

Sutondoan elkarteko emakumezkoek orain dela 20 urte sortu zuten antzerki taldea eta gaur egun ekintza giltzarria da bertan. "Jende gehien batzen duen ekitaldia da. Urtero egiten dugu antzezlanen bat. Gurea Aretoan, Kultur Birikan areto nagusi bat atontzea ahaztu zaielako. Eta Gurea Aretoaren baldintzak ez dira bate-re onak. Arropa kalean jantzi behar dugu, Udalak horretarako ipintzen dizkigun modulu bitan. Agertokia oso txikia da, eta lekua ere oso txikia denez, emanaldi bi eskaini behar ditugu. Gurea Aretoan baino lehenago, institutuko areto nagusian egiten genuen, baina lan handia ematen

zigun: agertokia muntatu, ikasgeletako eserlekuak hartu, ipini, beren lekura berriro eraman... Ea behar moduko aretoa egiten den inon!"

Antzerki taldea 15 aktore amateurrek osatzen dute, eta hemen gizonezkoak eta jende gaztea ere badaude. "Bakarrik emakumezkoak protagonista diren antzezlanak agortu egin zitzaizkigun, eta zuzen-dariak, Fernando Ansoleagak, esan zigun ez zuela ondo ikusten emakumezkoek gizonezkoen paperak egitea. Ezta aldrebes ere. Bere ustez, egileek begirunea merezi dutelako eta gidoiak ez direlako aldatu behar". Beste batzuen artean, Mihura eta

Lorcaren lanak antzeztzen dituzte, eta jendaurrean aurkeztuko duten hurrengo lana *El caso de una mujer estu-penda* da. Emanaldiak ekainaren 9an eta 10ean izango dira. "Geuk egiten dugu dena: arropa, dekoratuak, atrez-zoa... Baina laguntza ere eskatzen dugu: eskuekin oso trebea den bate-ren bati, jostunen bati..."

Ez da batere erraza jendaurrean ipini eta hitz egitea; eta are gutxiago paper bat antzeztea. "Antzerki taldean ikasten dugu irakurtzen, hitz egiten, erreztatzen... Eta agertokira igotze-ra behin ausartzen zarela, konfiantza handia hartzen duzu zugan eta zure gaitasunetan".

jasotzen dugu Udaletik eta Emakundek ere diru apur bat ematen digu. Bazkideek kuota bat ordaintzen dugu eta bagoaz ahal den moduan konpontzen".

Zilarrezko ezteiak ospatzen dabilta; urrezko ezteirik egongo da? "Uf! Guk ez dugu ikusiko, edo zaharrak izango gara oso. Baina hala izatea espero dugu, ea lor-

tzen dugun emakumezko gazteak gure-ganatzea eta horrela ordezkapena bermatzea. Egia esateko, emakumezko gazteen beharra dugu. Bazkiderik gazteenak 41 urte ditu, baina beste guztiok 60 urtetik gorakoak gara eta 90 urteko bazkideren bat ere badago. Zaila da, emakumezkoek orain beste helburu batzuk dituztelako

eta gehiago dakitelako. Seme-alabak ere gero eta beranduago izaten dituzte eta, ondorioz, ez dute ezertarako astirik... Tira! Saiatu beharko dugu ordezkarena modu batean edo bestean bideratzen!". Pena izango delako emakumezko hauek orain dela 25 urte zabaldutako bidetik ez jarraitzea.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



DESENTXUFATUAK


"euskaldunberri zaharrak ez dira inoiz hiltzen"
ANTZEZLANA

Patxo Telleria eta
Mikel Martinezen eskutik

DOAKO sarrera, eserlekuak bete arte

Apirilaren 18an, eguaztena
Derioko Gurea Aretoan
19:00etan

ERDU GEUGAZ, BIZI EUSKERAZI



a: Jon Goikouria Larrabeiti

Martxoan, Paul Urkijok zuzendutako *Errementari* filma estreinatu zuten zineman. *Patxi errementari* euskal ipuin tradizionalean dago oinarrituta, eta misterio, abentura eta zirraraz jositako istorio gotiko-fantasiakoa da. Pelikula euskaraz dago eginda, aspaldi galdutako XIX. mendeko euskara arabarrez, hain zuzen ere. Alex de la Iglesia ekoizle aritu da filmean eta aktore nagusiak hauek dira: Kandido Uranga, Uma Bracaglia, Eneko Sagardoy eta Ramón Agirre. Gainera, Platanoboligrafo ekoiztetxeak ere hartu du parte filmean eta bere eskutik, baita Igor Garcia eta Jon Goikouria sondikoztarrek ere. Igorrek ekoizpen-lanetan jardun du eta Jonek, argazkiak egin ditu. Hona hemen Jonen lanaren emaitza.






Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz. 1. Zamudio
94 452 00 06



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, beheko B
48150 SONDICA

634 410 470
auzokidefncas@gmail.com



ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami etxea, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)




SANTI MAMI
ALBARRAKITZA

Nerea Pedrosa Gola, 117
0601. SANABASA ZAMUDIO DERIO

Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15




LOREGARBI

GARRIKETA ZERBITZUAK

Garbi-irratia, erakortasun
Asistentzia teknikoak
Mantentze garbi-irratia
Bilgune eta irratia
Otroa-erakortasun garbiak
Asistentzia
Zabur bilera

Bosque Plaza, 1 - 0º Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93



Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala



Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

t/a: Itxaso Marina

Itziarrek pozik baino pozago agurtu gaitu Zamudioko bake-epaitegian daukan mahaitik. “Kargua hartzeko proposamena egin eustenean, apur bat pentsau neban, ez nekialako erresponsabilidade handiko lana izango zan edo sartuta nabilen beste gauzetarako denpora handia kenduko eustan. Baina lanean hasi naz eta hau zoragarria da”.

Bake-epaitegiaren eginkizuna batez be da zamudioztarrei hainbat izapidekaz languntzea, Bilbora joan behar ez izateko. “Izapide pilo bat egiten dira. Ohikoak jaio-tza- ezkontza- eta heriotza-agiriei lotutakoak dira. Bahiturak eta ez ordaintzeak be bideratzen doguz”. Azaldu deusku, bake-epailea izateko ez dela ezagutza berezirik euki behar eta, edozelan be, laguntza handia daukala idazkari judizialarengandik eta auzitegiko ofizialarengandik. “Hareek dira epaitegiko motorra. Nik esaten deustena sinatzen dot eta kito. Kontau deustenaren arabera, Zamudio lan handiena daukan herrietariko bat da. Izapidea bete eta gero postaz bidaltzen da Bilbora”.

Ezagutza berezirik behar ez izan arren, Itziarren eretxiz, bake-epaileak oso ezaugarri garrantzitsu bat euki behar dau: zuhurtzia. “Kontu handiz ibili behar dozu. Akabuan, izaera ezberdinetako tramiteak egiten doguz bertan eta gauza askoz enteratzen zara. Gainera, Zamudio oso herri txikia da eta guztiok ezagutzen dogu alkar. Beraz, ezinbestekoa da zuhurtziaz jokatzea, bai ala bai”. Herritarrei aholkularitza emotea eta arazoak edo eskariak bideratzeko daukiezan aukerak jakinarazotea bake-epailaren beste eginkizun bat da. Baita auzokideen artean gatazkarik balego, hori auzitara eroan baino lehen, arazoa konpontzen ahalegintzea be bai. Aitortu deuskun moduan, azken kontu honek kezkatzen eban batez be. “Jakina, nik pentsatzen neban: *Herritar bi ados ipintzeko edo euren arteko arazoa konpon-*

*Itziarren eretxiz,
bake-epaileak oso
ezaugarri garrantzitsu
bat euki behar
dau: zuhurtzia*

“Espero dot Zamudiorre urte asko egon aha

ITZIAR GOIRI BILBAO |
Zamudioko bake-epaile barria



Zamudioztarra 2017ko abenduaren 7an jabetu zan bere karguagaz. Erronka barriei ez deutse bildur, eta poztasunagaz eta ilusinoagaz dago aurrean daukan etapari begira. Gainera, Zamudioko lehenengo emakume bake-epailea da.

du eien, bitarteko izan behar duzu, baina gertatu leiteke hareetako batek zure bitartekotza txarto hartzea eta zugaz haserretzea. Eta nik ez dot hori gura”. Oraindino ez jako inor etorri halako auziategaz, baina inoz gertatzen bada, argi dauka zer egin. “Nik nire ikuspuntua azalduko deutset eta akordiorik lortzen ez badabe, badagoz beste bide legal batzuk arazo horreek konpontzeko. Beraz, bide horreetara jo beharko dabe”. Dana dala, lasai dago, badakielako epaitegiko langile bien eta Udalaren laguntza eta babesela duela.

Hainbat saltsatan

Itziar eleizari lotutako emakumea da, oso elizkoia, eta bere eginkizun barriak ezkontza zibilak ospatu behar izatea be ekarri deutso. “Bikote bi ezkondu dodaz eta, egia esan, oso pozgarria izan da. Txantxetan esaten neban, urteren ostean,

eleizaren kontra egingo nebala (kar, kar). Ez, txantxa da; oso polita izan da eta oso gustura egin dot, jakina”. Era berean, oso pertsona ezaguna da herrian eta hainbat egitasmotan eta irabazi asmorik bako alkarrean dabil nahastuta. Horrela, bada, odol-emotea bultzatzea helburua daukan Odol Argia Derioko alkarrearen presidentea da, bertako elikagaien bankuan ere hartzen dau parte eta katekista dabil Zamudioko eleizan, adibide batzuk aita-tzearren. Ziur asko, bere esperientzia, konpromisoa eta izateko era oso baliagarriak izango jakoz karguan ibiltzeko. “Gainera, tartean ez dago diru handirik. Senarrak beti esaten dau: *Tartean dirurik ez badago, Itziarri esan, poz-ozik egingo dau alako*. Egia esan, badago ordain txiki bat, baina oso txikia da, Justizia Ministerioak ezarritakoa. Nik ez dot kargu hau diruagaitik onartu, herritarrei laguntzeko baino”.

n zerbitzura l izatea”

*“Hau akuilua be
bada, gauza
barriak ikasteko
aukerea emoten
deustalako”*



Bake-epaitegia astelehenetan eta eguenetan, 09:00etatik 14:00etara dago zabalik. Lekuz aldatu barri dabe eta Arrantza eta Ehiza Alkartearen lehengo egoitzan dago orain, udaletxe ondoan. “Ni normalean ez nago epaitegian, baina sakelako telefonoa beti daroat soinean. Beraz, behar banabe, deitu eta hara noa. Gainera, badaezpada, ordezeko bat be badaukat. Javier Izurieta Galdona da”. Aurre-

ko lerroetan aitatu moduan, herritarrek hara jo daikie seme-alabak erregistratzera, heriotzen barri emotera, ezkontzak erregistratzera, bizi-agiriak eskatzera, eta jaiotzen, ezkontzen eta heriotzen hitzez hitzeko agirien bila. Era berean, salaketak ipini daikiez, baina bertan egiten diran epaiketak garrantzi gutxikoak dira, esate baterako, irainak edo mota batzuetako mehatxuak.

Itziarrek 66 urte dauzka eta jubiladua da. Bere aurrekoak, Jose Mari Etxeandiak, 14 urte emon ebazan karguan, eta Itziarri be gustauko litxakio bake-epaile luze ibiltea. “Espero dot Zamudioren zerbitzura urte asko egon ahal izatea. Gainera, ni zelangoa nazen kontuan hartuta, hau akuilua be bada, gauza barriak ikasteko aukerea emoten deustalako eta, ondorioz, bizitzaren beste ikuspuntu bat”.

M6 MAIATZAK HERRI GALDEKETA
Consulta ciudadana

Izartu
eta berria hartu

Zamudio Lezama 2018

har dezagun bidea
gure esku dago

@izartuzamudio
@izartulezama

facebook.com/izartuzamudio
facebook.com/izartulezama

izartuzamudio@gmail.com
izartulezama@gmail.com

“Ez dugu irabaztea helburu, eraikitzea baizik”

OLAIA AURRE ETA GORKA ZARATE | Izartu elkartearen kideak

Gure Esku Dago herri dinamikaren haritik, Izartu elkartea osatu da Zamudion eta Lezaman. Euskal Herriko hainbat udalerrirekin batera, herri galdeketara deitu dute Maiatzaren 6rako (M6), herritarrek beren estatus politikoaren inguruko gogoia adierazi dezaten. Izartu elkartearen kideek gakoak azaldu dizkigute.

Zamudioztarrak eta lezamarrak elkarrekin zoazte, zergatik?

2017an hainbat olatutan antolatu ziren herri kontsultak, baina momentu hartan ez genuen pausoa eman. Oraingoan bai, 2018ko olatu honetan bagoaz gauzatzera beste hainbat herrirekin batera. Batetik, ezin izan ditugu gure herriak ariketa demokratiko honetatik kanpo utzi; akaso, hau izan liteke azken trena momentuz. Eta, bestetik, Txorierri osorako baliagarria den elkartea osatu nahi izan dugu, beste herriei ere atea zabaltzeko nahi izan diegu.

Zein prozesuri jarraituko diozue M6ko galdera zehazteko? Galdera bera izango da herri bietan?

Ikusiko dugu; oraingoz, herri bakoitzak bere dinamika zehaztu du. Galdera desberdinak egingo dira, beharbada, edo ez. Herritarren parte hartzearekin zehaztuko da galdera. Beraz, guztiok animatzen zaituztegu zuen ekarpenak egitera. Galdera bera baino aberatsagoa izango da gure artean partekatzen duguna. Gure Esku Dagoren lema oso argia izan da galdeketa prozesuan: borondateak ehundu, adostasunetan sakondu eta herritarrek ahalgundatu. Eredu hori da gure herrietara ekarri nahi duguna; horregatik, galdera adosteko, ezinbestekoa ikusten dugu herritarren parte hartzea. Adostasun zabal eta anitza nahi dugu galderaren erabakitze horretan



ere bai, eta horretarako herrietako eragile sozial direnei ere luzatuko diegu gure gonbitea.

Nortzuek eman ahalko dute bo-toa?

Parte hartzeko baldintzak herrian erroldatua egotea, eta M6an 16 urte beteak izatea. NANA, EHNA, pasaportea edo gidabaimena aurkeztu beharko dira, eta azken hiru horietako bat erabiliz gero, errolda ziurtagiria ere bai. Atzeritarrek Atzeritarren Identifikazio Zenbakia (AIZ)

aurkeztu beharko dute. NANEan edo AIZn agertzen den bizilekua Lezama edo Zamudio ez bada, edo agiria iraungita badago, errolda ziurtagiria ekarri beharko da. Antolatzaileek ez dugu errolda zerrendarik, baina parte hartzaileen kontrola eramateko Gure Esku Dagok sortutako programa informatikoa erabiliko dugu. Horrexek emango digu bermea, gauzak garbi egin izanarena. Horrez gain, herritar batzuei laguntza eskatu zaie “berme taldea” osatzeko. Hau da, ematen diren

“Galdera adosteko, ezinbestekoa ikusten dugu herritarren parte hartzea”

“Ematen diren pausoei ahalik eta gardentasun handiena izatea da gure asmoa”

“Inportanteena da denon artean gure estatus politikoaren inguruan berba egitea”



Galdeketarako bidean

Elkartea herritarren aurrean aurkeztu ondoren, buru-belarri ibili dira lanean Izartuko kideak eta hainbat ekitaldi burutu dituzte, hala nola M6aren berri emateko ekintza eta egun hori kandelak erabilia irudikatzea, Eñaut Elorrietaren kontzertua Zorritzetan euskara elkartearekin batera,

Jaume Lopezen hitzaldia eta argazki-erakusketak. "Sinadura bilketarekin gabilta orain eta martxoan bertan zabalduko dugu galdera zehazteko prozesua. Horretarako, dinamika bat antolatuko da herri bakoitzean".

Apirilaren zehar eta M6a arte ere ekintza sorta zabala egingo da. "Zamudion, esate baterako, galdera apirilaren 8an

emango da ezagutzera. Sinaduren bilketaren emaitza ere jakinaraziko da, eta berme eta jarraipen batzordeen aurkezpena egingo da, eta galdeketa babesa emateko herritarren agerraldia egingo da. Hilaren 21ean egun osoko herri jaia izango da. Bestetik, Lezaman, Sukalki Eguna antolatu da apirilaren 21erako ere bai, eta hainbat ekintza egongo da".

Maiatzaren 6an, herri galdeketa-ekin batera, ekintzak ere izango dira herri osoan zehar. Herritarren parte hartzea ezinbestekoa izango da. Denon artean egingo dugu eta izugarria izango da. Gauza bat eskatuko genieke irakurleei: egun hori irudikatu eta pentsa dezatela zer gertatzea nahiko luketen".



pausoek ahalik eta gardentasun handiena izatea da gure asmoa.

Zer da inportanteena: emaitza ala parte-hartzea?

Inportanteena da denon artean gure estatus politikoaren inguruan berba egitea eta demokrazian sakontzea. Demokrazia parte hartzailean sinesten dugu, eta herrietako erabakitze eskubidearen aldeko muskulu soziala indartu nahi dugu. Gure gizartean ez dago galdeketa egiteko ohiturarik eta dinamika honekin "beldur" hori usatu nahi dugu eta honelako prozesu batek dakartzan onurak goratu. Sinadura bilketan ibili gara otsaila eta martxoan zehar, eta herritarren harrera ona ikusi dugula aipatu beharrean gaude. Herritar askorengana hurbildu gara eta lehenengo aldia izan da batzuekin estatus politikoari buruz hitz egin duguna. Eta horregatik izan ez balitz, ez genukeen sekula horrezaz hitz egiteko eta iritziak partekatze aukerarik izango.

Zelakoa da Zamudion eta Lezaman herri galdeketa haritik dagoen giroa?

Elkarteen sorreratik bertatik ikusi genuen herritarren interesa, eta orain arte hurbildu garen elkarte eta herritarren babesa eta atxikimendua sentitu dugu. Ez gara guztiengana iritsiko, bidea ez da erraza, baina ez badugu ahaleginik egiten, ezin da jakin herritarren nahia zein den. Herriko erabakitze eskubidearen aldeko indarrak batu eta gaia denon ahotan jarri

nahi dugu. Herritar guztiengana heltzeko, M6a arte etengabe jarraituko dugu lanean, buru belarri.

Larrabetzun iaz egin zuten herri galdeketa eta bertan botoa emateko eskubidea zuten % 58k hartu zuen parte. Antzeko zifrarik espero duzue?

Ez dugu zifren lehian sartu nahi. Bidean lanean ari gara eta hurbildu garen herritarren babesa sentitu dugu. Horrekin geldituko gara. Bidea ekinez egiten omen da, ezta? Galdeketa-ekin, ez dugu irabaztea helburu, eraikitzea baizik. M6ko olatu berri honekin 120.000 herritar inguruk izango dugu Euskal Herrian botoa emate-

ko aukera, horixe da herria indartzen eta aktibatzen duena, herritarrek ahalduztzen dituen.

Zergatik eman beharko lukete botoa herritarrek?

Printzipio demokratikoa delako. Demokrazian, herritarrok garelako subjektua, eta guk erabaki behar dugulako oraina eta etorkizuna. Gure berba eman nahi dugulako eragiten digun gai garrantzitsu honetan. Badakigu ez duela legezko baliarik, baina guztiz legitimoa da herriari galdetzea zer nahi duen. Ariketa hori egin ez gure ordezkari politikoek jakin dezaketeko herritarrok zer pentsatzen dugun.



2025eko Larrabetzu lantzen dabilz herritarrak

Larrabetzuko Udalak prozesu parte-hartzaile bat bultzatu dau, datozen urteotan jarraitu beharreko udal politikea herritarrakaz batera eztabaidatzeko eta horrerik lotutako irizpi-deak ipintzeko. Hau da, Larrabetzuko Plan Estrategikoa guztien artean zehazteko.



a: Idoia Andrés.

t: Itxaso Marina

Eunate Guarrotxena da Hirigintza arloko zinegotzia eta prozesu parte-hartzailearen arduraduna. Azaldu deuskunez, Udalaren eskumena diran hamar gai edo arlo landuko dira: kulturgintzea, euskera, ingurumena, ekonomia, hondakinak, gazteak, kirola, memoria historikoa, etxebizitza eta kirola. "Igazko otsailean batzar zabal bat egin genduan eta herritarrei jakinarazo geuntsen Plan Estrategikoa gartzeko asmoa genduala. Herritarrek eskari bi egin euskuezan: alde batetik, 2025eko Larrabetzu zelangoa izatea gura genduan jakiteko, interesgarria izango litzatekeala gaur eguneko argazkia egitea; eta bestetik, prozesuan teknikari baten laguntzea beharko genduala".

Lehen aitatutako gaien inguruan lanean dabilzan herriko eragileakaz batu

ziran eta, zortzi hilabeteko lanaren ostean, Larrabetzuren argazkia atera eben. "Gurea oso herri bizia da. Lan piloa egin da eta egiten gabilz, eta hori oso positiboa da. Baina aurrerantza joan gura dogu eta beti dagoz gauzak hobetzeko. Esate baterako, Europak hondakinen inguruan orain ezarritako kuotei heldu gura deutsegu. Beraz, hondakinak gitxitzeko zer egin daik egun hausnartu behar dogu". Euskera landu beharreko beste adibide bat da. "Larrabetzu arnagunea izan arren, arazo batzuk antzeman doguz gazteen artean. Gura dogu arnagunea ez galdu, eta ahalik eta euskaldun gehien izatea, eta euskera kalean ahalik eta gehien erabili daitela". Teknikariari jagokonez, Parte Hartuz ikerketa taldeko teknikari bat kontratatu dabe, herria eta bertan egon diren beste prozesu parte-hartzaileak ezagutzen dauzana. Parte hartuz Euskal Herriko Unibertsita-

teko taldea da eta ikerketa-lanak egiteaz gainera, laguntzea emoten dau prozesu parte-hartzaileak aurrera erodateko.

Eskari biak bete ondoren, lanean hasi dira Udala eta herritarrak. Gainera, www.larrabetzu2025.eus webgunea ipini da martxan eta hor prozesuari lotutako informazio guztia kontsultatu daiteke. Era berean, webguneak aukerea emoten deute larrabetzuarrei, euren ekarpena era birtualean egin dagien. Izan be, modu bi dagoz egitasmoan parte hartzeko: aurrez aurreko topaketan bidez, edo topaketa birtualen bidez.

Gaiak multzo bitan banandu dabez eta momentu honetan ondoko gaiak aztertzen dabilz: kulturgintzea, euskera, ingurumena, ekonomia, hondakinak eta etxebizitza. Udalekoak pozik azaldu dira herritarren erantzunagaz. "Gaiak batzar ezberdin bitan aztertu doguz -baten, hiru



*“Larrabetzu oso herri
bizia da. Baina
aurrerantza joan gura
dogu eta beti dagoz
gauzak hobetzeko”*

*Prozesuari lotutako
informazio guztia
[www.larrabetzu2025.
eus](http://www.larrabetzu2025.eus) webgunean
kontsultatu daiteke*

*“Herritarra subjektua da
eta berbea eta indarra
daukatz; halanda be,
azken urteotan ohitu egin
gaitue biztanleak izaten”*

gai; eta bestean, beste hirurak-, eta batzar bakoitzean 30 bat lagun agertu dira. Aurrez aurreko topaketak egin dira, eta horreetan gai bakotxari lotutako kezak azaldu dira eta proposamenak be azaldu dira. Hurrengo pausoa herritarrei emaitzak jakinarazotea da. Hori apirilean-edo egingo dogu”.

Udala, gestorea

Batez be emakumeek hartu dabe parte aurrez aurreko topaketetan zein topaketa birtualetan, eta gazteek interesa erakutsi dabe kulturagaz eta etxebizitzagaz. Hogeta hamar urtetik 40 urtera bitarteko herritarren parte-hartzea txikia izan da eta 18 urtetik beherako gazteak ez dira prozesuan egon. Irailetik aurrera ekingo deutsee gainontzeko gaiei –gazteak, kirola, memoria historikoa eta eskola-, eta horretarako prozedura berbera erabiliko

dabe, dagoeneko gai horreen azterketea eginda dauken arren.

Prozesua amaitu ondoren, Udalaren esku geratuko da herritarren eskariak betetzea. “Udalak gestore bat izan behar dau eta herritarren nahiak kudeatu behar dauz. Adibidez, plan orokorra landu genduanen be prozesu parte-hartzaile bat sustatu zan. Prozesu horretatik gure umeak eta nagusiak herrian segurtasunez ibiltea gura genduala atera zan ondorio, eta Udalak neurriak hartu ebazan bide horretatik: eskola inguruan aparkalekuak kendu edo abiadura moteltzea, tartean. Orduan, oraingo honetan be, herritarren irizpideak kontuan hartu behar doguz eta, gure gaitasun guztiakaz, hareek lortzeko ekimenak martxan jarri”.

Guarrotxenaren ustez, prozesu parte-hartzaileek herri hobeak egiten dabez. “Nire kezka da biztanle bihurtzen gabil-

zala, eta ez herritar. Eta guk aldarrikatzen doguna herritar izatea da. Herritarra subjektua da eta berbea eta indarra daukoz. Baina azken urteotan ohitu egin gaitue biztanleak izaten eta, “guk ez dakigunez ezer”, erabagiak beste batzuen esku uzten. Dinamika horregaz apurtu behar dogu, nahiz eta erraza ez izan”.

Prozesuari abenduan emongo deutsee amaierea eta datorren urtean udal hauteskundeak izango dira. “Beharbada, gu ez gara udaletxean egongo; halanda be, gu edo beste batzuk egonda, inportanteena da bide bat zabaldu dala, eta herritarrek eztabaidatzeko, pentsatzeko eta erabagitzeko eskubidea dabela kontziente diranean, oso gatxa dala martxan ipinitakoa geldiarazotea. Hau inportantea da udal politikarako, baita herriarentzat be. Guk horren zaintzaileak edo kudatzailak izan behar dogu”.



t: Gaizka Eguzkitza / a: Loiu KE

"Urteurrenaren haritik, ez dugu ezer handiegia egin nahi izan, ahalik eta jende gehien batzeko. Bizkai mailako talde zaharrenetariko bat gara, hau da, 75 urte ez dira urtero betetzen eta horregatik ospatu egin behar da, bai horixe!", esan digu Aitor Olartekoetxea Loiu Kirol Elkarteko idazkariak. Aitorrek umiltasunez hitz egin digu, baina baita harrotasun puntu batekin ere. Ez da gutxiagorako.

Beraz, loiuztarrek egun batean egingo dituzte ospakizunak, apirilaren 14an. Lehenengo ekintza meza izango da, Eloxelerriko futbol zelaian bertan, "hil diren taldekideei omenaldia egiteko". Ostean, beste omenaldi bat, batzarkide eta presidente nagusiei, "bizi direnei": José Urti eta Ángel Urrutikoetxea; Gerardo eta Javier Dañobeitia; eta José Mari Careaga. Ostean, Loiuuko beteranoek lagunarteko partidua jokatu dute Athleticeken kontra. "Hori ere omenaldia da, taldean ibilitako jokalariei". Jaia biribiltzeko, bazkaria antolatu dute eta horretan, "gutxienez 150-200 lagun batzea" espero dute.

Urteurrena dela-eta, Jesús Sustatxak klubaren historia jasotzen duen liburua idatzi du. "Jesúsek lan txukuna eta gogorra egun du: hainbat kontakizun eta argazki batu ditu, denerik dago". Liburua erosi nahi duenak urteurrenaren ospakizunetan bertan izango du aukera; bestela, klubarekin harremanetan jartzen bada, horrela ere erosi daiteke liburua.

Talde xumea

Loiu talde txikia da. *Urtik* jarraitzen du presidente eta berarekin batera 10-12 lagun dabiltza batzarkide. "Gehienak nagusiak dira eta jende gazteagoa klubean sartzea nahiko genuke. *Urtik*, esate baterako, 40 urte inguru daramatza taldean". Gaur egun, talde bik osatzen dute kluba: talde nagusia, Ohorezko Mailan, eta gazte taldea, Gazteak Bigarren Mailan. "Orain dela urte bi hirugarren postuan geratu ginen, baina gaur egun gorriak ikusten gabiltza, mailari eusteko. Jokalariak gogor egiten dute lan, helburua lortzeko, eta oso harreman ona dute euren artean. Eta hori polita bezain garrantzitsua da. Jakin badakigu Ohorezko Maila oso gogorra dela Loiu bezalako talde txiki batentzat, baina tira, sufritzen-eta, aurrera egiten dugu".

Umilen garaipena

LOIU KIROL ELKARTEAK 75 URTE BETE DITU AURTEN

Loiu Kirol Elkartea umila da, talde txikia. Beraz, ez da harritzekoa urteurrena modu horretan ospatzea ere. Taldea 1942an sortu zuten eta aurtan, 75 denboraldi geroago, apirilaren 14an, loiuizaleak batuko dira atzera begiratzeko eta, batez ere, data gogoangarri hura elkarrekin ospatzeko.



Goiko aldean, gaur egungo taldea. Beheko aldean, zelai berriaren inaugurazioa, 1989an.





Loiu taldeak arazoak ditu herria era-kartzeko. Esate baterako, jokalaria gehie-nak ez dira loiuztarrak. "Ez dugu harrobi handiagorik gurea herri txikia delako eta, ondorioz, gazteak topatzeko arazoak ditu-gulako. Loiu gazteak egon badaude, bai-na gehienek ikastetxe pribatueta ikasten dute eta hango taldeetan jokatzen dute. Eta gure inguruko herrietan, eskolek ez dute talderik eta, azkenean, gazteek herri-ko taldean jokatzen dute. Hori ekiditeko, ahozko hitzarmena egin dugu ikastetxe Frantsesarekin, bere kadete mailako mu-tilak gure taldera etortzeko".

Gainera, Aitorren esanetan, "Loiun apur bat sakabanatuta gaude, airepor-tuak banantzen gaituelako. Eta bazkideak, ba 200 bazkide baino ez ditugu, eta euren inplikazioa txikia da. Larrondoko lagunak partiduak ikustera etortzen dira; Loiu-ko herrigunekoak, aldiz, nekez hurbiltzen dira, nahiz eta kuota ordaindu". Agian ho-rregatik herriko enpresek ere eskaintzen diote klubari "laguntza txikia". Dena-de-la, oztopoak oztopo, Loiu tadeak aurrera egiten du azken 75 urteotan egin duen moduan, umiltasunez. Eta hori euren ga-raipena da, umilen garaipena.

"Bizkaiko talde zaharrenetarikoa bat gara; 75 urte ez dira urtero betetzen eta hori ospatu egin behar da"

"Ohorezko Maila oso gogorra da Loiu bezalako talde batentzat, baina tira, aurrera egiten dugu"

Elotxelerriri lotuta

Loiu Kirol Elkarteak 1928an hasi zen jokatzen Hirugarren Mailan. Hiru denboraldi pasatuta, taldea desager-tu egin zen, baina 1942an Félix Torrek, Prudencio Eguzquizagak eta Pedro Heros Loiu-ko kapilauak berriro sortu zuten futbol taldea. Garai hartan, fut-bol zaletasuna hazten zegoen eta hori zela-eta, Elotxelerriko zelaia eraiki zen, Prudenciok utzitako lur-eremu batean. Taldeak bertan jokatu zuen 1989ra arte, Udalak zela berria Elotxelerrin egin zuenean ere.

Kirol-aldeari dagokionez, 1966an gazte taldea sortu zuten, eta 1970ean, haur mailako taldea. Loiu-ko kluba xu-mea da eta lurraldeko mailan ibili da beti. Gaur egun, Lurraldeko Ohorezko mailan jokatzen du. Taldean hainbat jo-kalari aritu dira azken hamarkada haue-tan eta hauek dira Lehenengo edo Biga-rren Mailara iritsi direnak: Félix Marcaida, Ignacio Ayarza, Fidel Llona eta Trabudua (Athletic); Antonio Lasuen eta Gonzalo Arana (Valladolid); Llorente (Hércules); eta Sabino Uriarte (Jaen).



RADIO TAXI FEMADE
Zurri Txikia, Txanarrak
Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu
24h **94 480 09 09**
ERRESERBAK:
www.taxiszeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

Carrefour express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralekera
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Egutegian
9:00-14:30

Pago katea, 5
48170 ZAMUDIO

Txorierrri zuria

Nahiz eta udaberrian gauden eta dagoeneko gehienok erdi ahaztuta edukiko dugun, orrialde hauetara ekarri nahi izan ditugu otsailaren azken egunak oparitu zizkigun irudiak. Otsailaren 28an, elurra mara-mara ari zuen goizeko lehenengo orduetan, eta kaosa eragin zuen errepide nagusietan eta sekundarioetan. Garraio publikoa ere ez zen ondo ibili. Horrela, arazoak eduki genituen etxetik ateratzeko eta lanera ailegatzeko, eta ume askok ere jai eguna izan zuten eskolan. Nahaspila alde batera utzita, elurrak irudi ederrak ere utzi zizkigun.



Zamudio. a: Zamudioko Udala.

KURREGOTTI
JATETXEA
Laurapita erabidea, 27
48180 Leku-Bizkoba
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantekurregotti.com

Lzpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA
Sabino Arana, 3. floor - 48150 SONDIKA (Bizkai)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - lzpilen@gmail.com

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkoba
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

LEZAMAKO BATZOKIAK
GARAJOLTZA ALIZOA 1208
946561719
batzokilezama@gmail.com

Herriko LeZAMA Batzokia

S.A.T. LEGU
KONATZAILERIA ETA KONTABILITASIA

Fa. 94 455 26 47 Tx. 94 455 21 99



Zamudio. a: Zamudioko Udala.




Loiu. a: Aratz Astobieta.



Sondika. a: Ursula Tomás.



Derio. a: Cristian Álvarez.



Loiu. a: Josu Andoni Begoña.



Larrabetzu. a: Idoia Andrés.

Euskararen Interneteko egoeran eragiteko estrategiak behar dira

Hala adierazi du PuntuEUS Fundazioak. Euskarak Interneten duen presentzia hirugarren urtez jarraian aztertuta eta horretarako hiru arlo neurtu dituzte: .EUS domeinuaren egoera, Internet Euskal Herrian eta euskararen egoera Interneten.



Azterketa PuntuEUS Behatokiak egin du eta emaitzak euren webgunean daude ikusgai. PuntuEUS Behatokia PuntuEUS Fundazioaren ekimena da. Lorea Bilbao Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako Foru Diputatuak eta Josu Waliño PuntuEUS Fundazioaren zuzendariak aurkeztu dute 2017ko datuen gainean egin-dako neurketaren emaitza.

Waliñok azaldu duen moduan, datuak gutxi aldatu dira Behatokiak Euskal Herriko Internet neurtu duen hiru urte hauetan. Antzeko emaitzak jaso izanak agerian uzten du Interneten hizkuntza ohiturak al-

datzeko epe ertain-luzeko politikak behar direla eta argazkia ez dela egunez egun aldatzen. Euskal Herriko webgune guztiak aintzat hartuz gero, euskarazko edukia duten webguneak 26.663 dira, guztien % 16. Datu hori aurreko urteetako neurketetan lortutakoa baino zehatzagoa da, ikerketa egiten duen *crawler*rean (neurtezko erabiltzen den sistema) garatu diren hobekuntzei esker. Euskararen erabilera oso bestelakoa da, arreta .EUS domeinudun webguneetan jarritz gero. Izan ere, .EUS domeinudun webguneen % 90ek euskara erabiltzen dute.

.EUS erabiltzen duten webguneen artean, euskara (% 90) eta gaztelania (% 83) dira nagusi. Ondoren kokatuko litzateke ingelesa (% 47) eta, oso presentzia txikiarekin, frantsesa (% 12) eta beste hizkuntza batzuk (% 11). Euskara eta gaztelania oso parekatuta daude banaketa horretan eta, hein batean, ulertzekoa da hori, webgune gehienak ele anitzekoak direlako, eta horietako asko hegoaldean kokatuta daudelako.

.EUS domeinuaren hazkundea bereziki enpresetan ari da gertatzen. Une honetan, .EUS domeinuen jabeen ia erdiak enpresak dira, % 43 hain zuzen ere, iaz baino bederatzi puntu gehiago. Banaketa geografikoari dagokionez historikoki indartsuena Gipuzkoa izan den arren, azken urtean Bizkaian hazi da azkarrago .EUS komunitatea. Azken ekitaldian, % 22 hazi zen .EUS domeinua, eta 8.100 domeinu izen daude erregistratuta une honetan.

.EUS mapa

PuntuEUS Behatokiak helburu hau du: euskarak Interneten duen presentzia indartzeko behar diren estrategiak eta politikak definitzeko behar den tresna eskaintzea. Tresna irekia da eta euskal gizarte osoaren eskura dago, nahieran erabiltzeko. PuntuEUS Behatokia erabili du, hain zuzen, Irontec enpresa teknologikoak, '.EUS mapa' proiektua garatzeko. Proiektu horren helburua da domeinuzen erregistroen bilakaera historikoa grafikoki aurkeztea eta domeinu-izenei buruzko informazio teknikoaren egoera eta bilakaera aurkeztea. Irontecek garatu duen proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa jaso du.



Nanoak erraldoien sorbaldan

Memoria historikoa

t: Juan Luis Goikoetxea / a: J.A. Mentxaka

Artikulu honetara Txorierriren aldaketak nakar. Aspaldiko landetan lantegiak dira nagusi. Plazan eta eleizpean baino alkarrizketa gehiago egiten da Internetez. Zer esan giro honetan memoria historikoaren gainean, bizi izan ez ditugun saioietako gertaerei buruz?

Geldotako Bitorianoren koplak minidisketan grabatzen genbiltzala, konturatu nintzan haren lobek eta ilobek ez ekiela aitita koplaria zanik be; eta auzoko zaharrenak Kaminoko 40 kopletarik bakanen bat gogoratzeko gai zirala. Hori guztiori, Bitoriano Bolunburu hil zanetik 60 urtera.

Zorionez, badira taldeak –emakumeena kasurako– gizartearen ezikusaren aurrean memoria historikoa berreregiten dabiltzanak; memoria ofizialaren aurrean, oroitzapen herritarra idazteko. Halanda guzti, asko da jasotzeko dagoana eta jaigoteko gure kulturako zein ondareko aberastasunetan. Adibiderako, Sagrarioren oraintsuko kontakera: Aitatu dituean Derioko kanposantuko afusilatzeak, hango tiro-hotsa, jatsi egin dau ahotsa bilduraren eraginez, 80 urtegarrenean. Bada zer batu.

Bestalde, aurrekoengandik hartu doguz bizitza nahiz hitza geuk jagon dagi-



guzan, baina hurrengoentzat geu gara iragana. Landu eta osotu egin behar dogu gaurko kultura nahiz ondarea, ibili ez daitezkan ostekoak memoria eregi ezinik.

Horreri begira, zein etxe gitxitan praktikatzen dan zahar-gazteen arteko

dialogoa bazkaltzean edo afaltzean telebista paretik kenduta! Ez dagigun uste izan eskolak dana konponduko, transmitiduko dauanik; irakaskuntza ez da magia.

Ez geunke ahaztu behar gaurko andra-gizon nanook aurrekoen bizkarrean goazala, nanoak erraldoien sorbaldan.



Gestioitza, 33 bis LEZAMA
620 15 35 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centrodeestudiosolazpi.com
solazpi.zaharregi@gmail.com

Astintza, 6 Inbisa Ind., C^o, 16-17, DERIO
688 847 633



Muji TALLERAK

% 10eko deskontua*

Iraki Jabi
94 455 65 08 94 452 14 31



Magalarte Txakolina

ARITZABALITZA 100% UZA ARITZABALITZA
Borako Txakolina 75 cl. 10,75 % vol.
Distribuidor de Ojeda

Jantzea **SAN ISIDRO**

ESKONTZAK, BATAKAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua • Laneko zerbitzua • Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 hoki • Sakaloritu tradizionala

Telefonoa 94 434 07 90 Fax 94 434 14 10
Mungaiar etxeak, 21 48100 LIZKIZ



Peñasko arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel.: 94 452 0808

Etxeko sukaldaritza

Orburuak, saltsa berdean

t: Maite Lekerika / a: gastronomiavasca.net

Osagaiak:

- Orburu-lata bi
- 100 g pernil (dadotan ebagia)
- Tipuleta eder bat
- Berakatz-atal bi (txikituak)
- Arrain-salda
- Oliba orio-zurruzta bat, gatza, perrexila eta gari-urin apur bat

Prestateko erea:

Tipuletea txikitu eta orio apur baten erregosiko dogu, su eztian. Oraindino erre ez dala, berakatz gehituko dogu eta egiten beste minutu bat inguru eukiko dogu. Ondoren pernila eta urina gehituko doguz, eta gero saldea eta perrexila. Egosten bost minutu inguru izango dogu. Orburuak saltsan sartuko doguz eta irakiten beste bost minutu inguru itxiko dogu.



Arroz eta kinoa-bolak

a: recetasverdeentuplato.com

Osagaiak:

- Arroza
- Kinoa
- Piperbeltza
- Mihilu-hautsa
- Jengibre-hautsa
- Kipula-hautsa
- Perrexila
- Kuminoa
- Ezkaia
- Kipula
- Almendra
- Barazki-salda
- Urina

Prestateko erea:

Arroza eta kinoa egosiko doguz. Ontzi baten espeziak, arroza eta kinoa nahastuko doguz. Zatitxoak hartu eta bolatxoak egingo doguz. Uruneztatu eta frijidu egingo doguz. Saltsea egiteko, kipulea eta almendrea zartagin baten ipiniko doguz eta erreko doguz. Saldea bota eta birrinduko dogu. Bolatxoak saltsan sartuko doguz.

IRATXO
gaztegia
tarte personalizatuen
trufak
lekuak
pastelak
paninak

Medal Zarate, 2 - 8. leinjo • Soraluze, 48100 • 94 452 84 10

GALAISA
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3, SONDA

ASADOR FUENTENE
berria
"lar eta itsasoko baserria"

Gosariak
Aitariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Oliba eta arraina
txingarretan erretia

LEKUNBI-AUZOA 26
3AMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuentenabarra.com

TABERNA GAZTE
Eguneko menuak
Ospakizunak

Arenxalde, 541 - 48196 LEZAMA
94554422 - gaztedtaberna@gmail.com

BOLALEKU
JATETXEA

Hainbat menu
Karta
Ospakizunak
BOLAPARK

Garatzen, 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantoki Pribatuak

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak



Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu. a: <http://es.hellokids.com/>

Gomendioak



LITERATURA: NAGUSIAK

- Bioklik* (Elkar), Asel Luzarraga.
- Neska bat leku imposiblean* (Elkar), Xabier Amuriza.
- Pelegrinak* (Pamiela), Jose Enrike Urrutia Capeau.
- Ez duzu abusatuko* (Elkar), Alberto Barandiaran, Iñigo Astiz, Miren Rubio

LITERATURA: GAZTEAK

- Zaldi mamarroa* (Elkar), Ekaitz Goienetxea.
- Zaldi beltzak zeruan* (Pamiela), Txomin Peillen.

Sudokua

9	5	1	7	3	4	2	6	8
8	7	3	6	2	5	1	4	9
2	6	4	8	9	1	3	5	7
5	3	9	4	8	6	7	1	2
1	4	2	9	5	7	6	8	3
6	8	7	3	1	2	4	9	5
7	1	5	2	6	8	9	3	4
3	2	8	1	4	9	5	7	6
4	9	6	5	7	3	8	2	1

1	2	8	3	7	5	9	6	4
9	7	8	1	4	9	5	7	3
7	1	5	2	6	8	9	3	4
6	8	7	3	1	2	4	9	5
3	2	8	1	4	9	5	7	6
4	9	6	5	7	3	8	2	1
5	3	9	4	8	6	7	1	2
1	4	2	9	5	7	6	8	3
2	6	4	8	9	1	3	5	7

Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-IMPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Avetiza doktorea, 11 - 5. esk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urte Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

ERREKA PAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

BIZKARGI

TABERNA ETA JAKARIA

Urteaga, 8 DERRIO

944541635

Erakusketak

Sondika

- > Felipe Manterolaren argazkiak. Apirilaren 9tik 26ra, liburutegian.

Derio

- > "Donde rompen las olas", Angel J. Sanchezen eskutik. Apirilaren 25era arte, Kultur Birikan.

Ikastaroak

Loiu

- > Sukaldaritza tailerra, umeentzat. Apirilaren 6an, Lauroetako txokoa. Izena ematea, ludotekan.

Derio

- > Txakurra eta irakurketa, 2012an, 2013an eta 2014an jaiotakoei zuzenduta. Apirilaren 23an, 17:00etan eta 18:30ean, liburutegian. Izena ematea: apirilaren 9tik aurrera.

Zamudio

- > Ardoen dastatzea. Apirilaren 12an eta 13an, 19:00etan, Baserri Antzokian. Lagatzu euskara elkarteak antolatuta. Izena ematea: apirilaren 10era arte.
- > Zen meditazioa. Apirilaren 19an, 19:00etan, Eskolako areto nagusian.

Larrabetzu

- > Dantza soltea. Apirilaren 22an eta 29an. Informazio gehiago: bizkargidantzaelkarteak.eus.

Ikuskizunak

Sondika

- > Iñaki Carretero ipuin kontalaria. Apirilaren 20an, 18:00etan, liburutegian.

Zamudio

- > Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Boro-bilean. Maiatzaren 4an, kiroldegian. Lagatzu euskara elkarteak antolatuta. Sarrerak erostea: apirilaren 9tik 11ra, Lagatzuko kideek; gainontzekoek, apirilaren 12tik aurrera udaletxean eta Estankoa.

Irteerak

Sondika

- > Erlo mendia. Apirilaren 15ean; izena ematea: apirilaren 11ra arte, liburutegian. Udalak eta Gurasoen elkarteak antolatuta.

Derio

- > Sopena: Añes – Urduña (19 km); Le-doño Goikoa – Urduña (8 km). Apirilaren 15ean, 07:30ean, Nagusien Etxean.

Zamudio

- > Cafés Baque fabrikara. Apirilaren 11n, 10:00etan, Txorierriko etorbideko gela-lekutik. Lagunandrek antolatuta.
- > Peñalba de Lérdano. Apirilaren 15ean, Arroeta mendi taldeak antolatuta.

Lezama

- > Ogoño, apirilaren 7an; Orixol, hilaren 15ean; Babiako mendiak, hilaren 27tik 30era. Gailur mendi taldeak antolatuta.

Larrabetzu

- > Maule. Apirilaren 12tik 14ra. Informazio gehiago: bizkargidantzaelkarteak.eus.

Musika

Derio

- > Eskualdearteko Kontzertua: Regina Angelorum eta Ipar-Alde abesbatza. Apirilaren 28an, 19:30ean, San Isidron.

Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Libe. Apirilaren 15ean, 18:30ean.

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > Literaturaz berbetan: Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* liburua. Apirilaren 19an, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ospakizunak

Loiu

- > VII. Motorren Kontzentrazioa. Apirilaren 21ean, Txoribikers taldeak antolatuta.

Zamudio

- > Liburuaren Eguna: *Itoitz* ipuin kontaketa musikatua, liburutegian (umeentzat). Apirilaren 21ean, 11:30ean, liburutegian.

Larrabetzu

- > Liburuaren Eguna. Apirilaren 23an.

Txapelketak

Sondika

- > Balkoiak apaintzea. Izena ematea: apirilaren 9tik 24ra, liburutegian.
- > "Sondika pntxotan". Apirilaren 14an.

Derio

- > XIV. Argazki rallya. Apirilaren 21ean, 10:00etan, Kultur Birikan. Derioko Argazki Taldeak eta Udalak antolatuta.

Zamudio

- > Balkoiak apaintzea. Izena ematea, udaletxean.

Bestelakoak

Loiu

- > Zuhaitz Eguna. Apirilaren 13an.

Derio

- > Pintxo pote eta animazioa. Apirilaren 21ean, 19:00etan, Goiko eta Beheko aldean.



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburategietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikari jarraituz, hau jakinarazten ditugu formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi baten gordetako direla. Fitxategiaren erabilera TOFDAN TXORORRKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrolak euren ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Zure datu, edozein momentutan datuak erabiltu, balioabete eta zuzendu daitezke dituzu. Horetarako, helbide honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

zapatuan **Apirilak 21**

LORATEGIEN EGUNA

STIHL®

Etorri gu ezagutzera!

 Lorategi handiak, ertainak eta txikiak daude.... Berdin dio zelangoa den zurea, **STIHL**-ek onena eskaintzen dizu, hori ederra izateko.

Etorri eta ezagutu gure produktuak eta udaberriko eskaintzak! Gainera, dibertsioa eta sorpresa handiak egongo dira egun osoan zehar.

eta eraman
OPARI BAT*

**KIROL ETA
AISIALDIKO JARDUERAK**

EDERTASUNA

LANDA-TURISMOA

FAMILIA



Opariak jasoko dira, norik bere datuak jakinarazten baditu (merkatutza-heiburustariko). Doreko esperientziak, 2x1 eta familako paketeak. Promozioaren baldintzak, www.diestihl.es webgunean.



agrojardín
Astikene

Astikene industrialdea, Berezi 23C
48160-Derio BIZKAIA
Tel.: 944 540 652 / Fax: 944 540 653
astikene@agrojardinastikene.com
www.agrojardinastikene.com

**BANATZAILE PREMIUM
BAKARRA BIZKAJARAKO**